

Mermel-en mundu arraroa

Haur eta Lehen Hezkuntzan aniztasunari eta disidentziei ekiteko proposamen didaktikoak.



Ana Moyano Cano-ren ilustrazioak

Belén de la Rosa Rodríguez • Mercedes Sánchez Sáinz
• Melani Penna Tosso

Jatorrizko titulua: *El mundo raro de Mermel. Propuestas didácticas para abordar las diversidades y disidencias en Infantil y Primaria.*

© 2020 Rochi (Mercedes Sánchez Sáinz), Polvorilla (Melani Penna Tosso), Bol (Belén de la Rosa Rodríguez).

© 2020, ilustrazioena: Ana Moyano Cano.

© 2020, edizio honena: CCOOko Irakaskuntza Federazioa.

Lehen edizioa: 2020ko maiatza.

Diseinua eta maketazioa: Ana Moyano Cano.

Euskarazko itzulpena: Eloi Artolazabal.

Inprimaketa eta azaleztapena: Eujoa Arte Grafikoak.

Espanian inprimatua.

ISBN: 978-84-09-17595-6

Lege-gordailua: M-13564-2020

Ezin izango da liburu hau osorik edo zati batean kopiatu, ezta edozein modutan edo edozein bide erabiliz transmititu ere, copyrightaren titularren aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe. Aipatutako eskubideak urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitua izan daiteke.



Mermel-en mundu arraroa.

Izenburu honen bitartez, Haur eta Lehen Hezkuntza etapetarako materialari tarte eman nahi diogu. Funtsezko helburua zera da: pertsona bakoitzaren ezberdintasunak nabarmentzea, sentitu eta bizitzeko era bat sustatzen duen errealitate bat bezala, mugitzen garen inguruak itzuli diezagukeenaren arabera, betiere, aniztasunak taldearen aberastasun moduan, positiboki begiratua, mundu anitzean anitza ere izateko modua.

Zentzu zabalean, aniztasuna sexualitateei, generoei, gorputzei, ideologiei, gizabanakoaren askatasunei erabat lotuta dago, garatzen garen kultura edo gizartearen arabera aldatzen diren alderdiak.

Parametro kultural zorrotzetan, bizitzaren garai goiztiarretan ez dago aurreiritzi itxirik, bereizkeria eraturik ezta, ona edo txarra, osasuntsua edo kaltegarria dena bereizteko, aldezturik pentsatutako ideiarik. Etapa hauetan, eskarmentuaren bitartez bizi, sentitu eta ikasten da. Horregatik, hezitzaile eta irakasle garenez, garrantzitsutzat jotzen dugu gure ikasleak estrategiaz eta tresnaz hornitzea, beren ezberdintasunak negatiboki bizi ez dezaten, direnetan ahalduzko eta aberastasun elementu eta askatasunean bizitzeko gaitasun handiago gisa, sentimendu positiboaren osotasunetik. Guztiz interesgarria da zera barneratzea: pertsona bakoitza bakarra, baliotsua dela eta norbanakoaren aniztasunak, mugatu ordez, aberastu egiten gaituela.

Honako arazoei ekiten saiatu gara: Genero arazoei, identitateari, rolei, indarkeriari, gorputzei, kultura eta etnia ezberdinei, munduan egin eta egoteko moduei, ahalmenei, indarkeriaren prebentzioari eta berdinen arteko jazarpen egoerei eta adingabeen abusuari.

Haurrei, neska-mutilei beste errealitateak ezagutzeko aukera emateak, pertsona heldu zoriotsuagoak, askeagoak, osatuagoak izateko aukera eskaintzea da.

Espero dugu material honek, egunero beste pertsonak hezteko lan neketsuari aurre egin behar izaten dioten irakasleak baliabideez hornitzea, baldintza hobegotan bizi eta profesional hobeak izateko, hezkuntzaren indar transformatzaileak mundua hobetzen eragiten baitu.

Hemen proposatutako jarduerak, arazo guzti hauei ikuspuntu intersektionaletik nola ekiteko adibidea baino ez dira. Gainera arazten ditugu ere, garapen iraunkorrari, ekologiari, zaintzei, kontsumo edo kapitalismoaren ganako kritikari edo begirune jarrerren garapenari buruzko gaiak, betiere prebentzioaren bidetik.

Esfortzua eginda ere, jarduerak lan proposamen ezberdinetan bereiztu behar izan ditugu, ulergarritasun handiago eman eta bere garapena eskuragarriago egiteko xedez. Material honi globalki ekin dakioke, lan proposamenetan edo zatitan antolatua, gelaren programazioari dagokionez bere ezarpena errazteko.

Guzti hau inplementatu nahi dutenak animatu egiten ditugu, aldatzekorik ikusi eta nahi izanez gero, askatasunez egiteko, beren ekarpenek proposamenak aberastuko baitute. Materiala, bizia, aldakorra izatea nahi dugu eta bera ezarriko den testuinguruaren arabera, eboluzionatu eta bilakatuko dena.

Zure ezaguerak gehitzeko edo euskarri teorikoari buruz gehiago jakiteko interesaturik bazaude, egileen liburua kontsulta dezakezu (*Somos como somos: Deconstruyendo y transformando la escuela*. Catarata argitaletxea).

Materialak nola funtzionatzen duen.

Eskuetan duzun materiala hiru eduki-multzo handi eta lan-gaien (dibertsitateak, sexismoa eta zaintzak) inguruko 14 proposamen didaktikoaz osatuta dago. Horietako bakoitza modu independentean landu daiteke, eta lan-proposamen bakarra eratu ere bai.

Beste aukera batzuk ere badaude, irakaskuntza-beharren arabera ere aukeratzea. Hala ere, unitate guztiak landu nahi badira, proposatutako ordenari jarraitzea iradokitzen dugu, Mermelek hasieratik bukeraraino, zein izango den bere familia erabakitzen duelako¹.

1. Blokea. Nolakoak gara?

Aniztasuna aberastasun kolektibo gisa.

Bloke honetan aniztasuna aberastasun eta ez bereizkeria gisa ulertarazi nahi dugu. Sei lan proposamenetan zehar aniztasun ezberdinei ekingo zaie: gorputzari dagozkionak, sexu-generikoak, familiarrak, kulturalak, funtzionalak eta materialak.

1. Proposamen didaktikoa: Koloreak, tamainak eta formak.

Gorputzak, etniak, sexualitateak eta generoak. *Mermel.*

2. Proposamen didaktikoa: Herria gara.

Kultura, jatorriak. *Nire herria, gure herria.*

3. Proposamen didaktikoa: Era ezberdinean funtzionatzen dugu.

Zein ederki!. Aniztasun funtzionalak. *Superkoadrila.*

4. Proposamen didaktikoa: Nik daukadanak ez du nire balioa adierazten.

Aniztasun materialak. *Truke eginez.*

13. Proposamen didaktikoa: Maitasunak.

Sexualitateak eta afektuak. *Hanketako hatzak.*

14. Proposamen didaktikoa: Familia gara.

Familiak. *Ipuin arraro eta bustia.*

2. Blokea. Ez ditut gauzen erdiak galdu nahi!

Sexismorik eza roletan eta garapen pertsonalean.

Bloke honetan, garapen indibidualean sexismo ezarekin lotutako gaiak landuko dira. Hiru proposamenetan zehar, alderdi hauek landuko dira: jolasak eta jostailuak, lanbideak eta janzteko moduak; hori guztia, bereizitako rola kontuan izanda eta hauen deseraikitzea helburu hartuta.

5. Proposamen didaktikoa: Zer jantziko dut?

Generoarekin lotutako janzkerak.

6. Proposamen didaktikoa: Jolas orduan.

Lanbide ez sexistak.

7. Proposamen didaktikoa: Jolastera baino ez goaz.

Modu ezberdinetan jolas eta jostailu ezberdinekin aritzeko gai izatea, genero binarioak kontuan hartu gabe.

3. Blokea. Elkar zaintzen dugu.

Zaintzak.

Bloke honetan zaintzaren garrantziari buruzko ideiak eskaintzen dira, norberarenetik hasita, zaintzarekin, norberaren ezagutzarekin, berdinen arteko jazarpenarekin eta sexu-abusuarekin lotutako bost lan-proposamenetan zehar.

8. Proposamen didaktikoa: Elkarri begiratzen diogu.

Gorputzen ezaugarriak. *Asmakizunetara jolasten.*

9. Proposamen didaktikoa: Elkar zaintzen dugu.

Zaintzen garrantzia. *Adi, adi!*

10. Proposamen didaktikoa: Begira eidazu, errespetatu nazazu.

Mugak lantzen. *Niri egitea gustatzen ez zaidana kontatzen dut.*

11. Proposamen didaktikoa: Ez ezetz da, zein hizki ez duzu ulertzen, "E" edo "Z"?

Sexu-abusua. *Karakola.*

12. Proposamen didaktikoa: Stop.

Berdinen arteko jazarpen egoerak. *Txas-aren rap-a.*

Proposamen didaktiko bakoitzean, egitura bera jarraitu dugu:



Irakurri, pentsatu eta hitz egiten dugu.

Interes gune batean oinarrituta, proposamen didaktiko bakoitzean ikasleek garapen intelektuala laguntzea nahi dugu, zenbait gaitasun sustatu eta, egiten zaizkien galderen bidez, pentsaraztea. Ipuina, asmakizuna, atso-titza, etab..., beti aurrealdean egongo da eta, atzealdean, irakasleentzako orientabide moduan, gelan lantzeko jarduerak planteatzen dira.



Sormena lantzeko marrazkiak.

Haurren eboluzio garapenean, marrazketa eta esku lanak eta lan artistikoak funtsezkoak dira, motrizitate fina eta lodia, pertzepzio prozesuak eta sormena hobetzen dituzten teknikak bezala. Beraz, eta ilustrazioen laguntzaz, jarduera mota hauek zenbait ikaskuntza eskuratzeko motibazio iturri direla uste dugu. Unitateetan garatu beharreko jarduera ezberdina izango da kasu bakoitzean: zenbaitetan, koloratu beharko da, bestetan punteatu eta baita collageak egin ere... azkenean, erabakitako formaz ebaki eta jarduerak garatzeko. Ikus dezakezu, materiala bukatzean herri bat dagoela (21. orrialdea) horixe eskatzen duten unitateetan ikasle bakoitzaren ekarpenen bidez eraikitzen joango dena. Egokia litzateke, materiala bukatzean, gelako paretetan edo pasilloetan, ikasleek margotutako bere herria zintzilikatzea, egindako lanaren erakusketa moduan, aniztasuna aberastasun faktore gisa bistaratzuz.



Jolastera goaz.

Jolas-moduan, unitate bakoitzean, edukiak kontuan izanda, jarduera ezberdinak proposatzen dira.



Familian egiteko.

Gai hauetan hezteko, familien konpromisoa eta familiekiko koordinazio osoa guztiz beharrezkoa da. Honek zera dakar: gizarte- eta afektibitate-garapenari laguntzea, horrela, funtsezko garapen bere bi esparruetan ardaztutako ikasketa ekologikoari mesede eginez. Fitxa hau puntuetatik moztu beharko da eta etxera eraman, familiarekin edo bizi den pertsonekin proposatutako jarduera burutzeko. Aurrealdean, bete behar den fitxa dago eta atzealdean, berriz, bere garapenerako orientabideak. Irakasle bakoitzak ezarritako denboran, fitxa beteta ekarri beharko da eta gelan partekatu. Koaderno bat egin daiteke liburu bidaiaria edo posterra ikasleek eta bere familien fitxa guztiekin, betiere, bakoitzari bere lekua eta garrantzia emanaz. Eskolaren eta familiaren arteko lankidetzaren proposatzen dugu, heziketa garapen onaren xede komunez.

Laburbilduz, ezarpen bereziki praktikoa duen materiala ari gara eskaintzen eta bi helburuz: ezaugarrienganako arreta (gorputzakoak, kulturalak, sexu-generikoak, funtzionalak, familiarrak, afektiboak...) modu intersektionalean eta, Haur eta Lehen Hezkuntza sexu-heziketa integrala, bazterketarik gabe eta ekitatean oinarrituta.

Halere, beharrezkoa da, betekizun hau bere ardurapean izan eta praktikan jartzea erabakitzen duten irakasleek eta irakaskuntzako profesionalak (gizarte hezitzaileak, PT-koak, HAKoak, hezkuntza orientabideak...) lehendabizi, bere izaera aztertzea, gai hauen inguruan dituzten aurreiritziak, nola bizi izan duten sexu-heziketa eta sexualitatea eta banakako ezberdintasunak nola ulertzen dituzten. Izan ere, zaila da beste pertsonak aldatu nahi izatea gure ideiak, fobiak, gure arbuioak, gure ahalbidetakoak eta gure mugak aztertzen ez baditugu. Labur esanda, ezin dezakegu beste pertsonak aldatu nahi izan azterketarik eta gure aldaketarik gabe. Material hau, irakasleek, ikasleek eta familien artean ikasteko aukera pedagogiko bezala ikusten dugu.

Espero dugu, material honek ekitatearen aldeko borrokari zertxobait laguntzea, gizarte zuzenagoaren eta kalitatezko heziketaren alde eginez, gure ezberdintasunen barneratze eta bereiztean oinarritzen ez dena.

1. Materialaren paperezko inprimakia DIN A3-an egitea gomendatzen da, bi aldetatik, ikasleekin zein familiekin lanaren bide logikoari jarraitzeko asmoz.

Hezkuntza araudia.

Material hau indarrean dagoen lege araudien aginduetan oinarritzen da. Ez da kapritxo bat ezta hezkuntza mailan ezarritakotik kanpo dagoen proposamena ere. Horregatik, estatu mailan indarrean dauden lege eta errege dekretuak aipatzen ditugu. Dena den, autonomia erkidego bakoitzak bere dekretuak ere baditu eta kontsultatzea eskatzen dizuegu proposamen hauekin parekatzeko. Ez dira jarduera isolatuak banakako gogoetan oinarrituta baizik, eta legeetan, errege dekretuetan eta ikastetxeetan derrigorrez ezartzeko indarrean dauden dekretuetan².

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa (LOE)

«Hezkuntzaren helburuen artean, honako hauek azpimarratzen dira: ikasleen nortasuna eta gaitasun afektiboak erabat garatzea, funtsezko eskubideekiko eta askatasunekiko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrekiko errespetuan prestatzea, aniztasun afektibo-sexuala onartzea, eta portaera sexistak gainditzeko desberdintasunen balioespen kritikoa egitea». (Hitzaurrea)

«Askatasun pertsonala, ardura, herritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta justizia bultzatuko dituzten eta diskriminazio mota oro gainditzeko lagunduko duten balioen transmisioa eta praktikan jartzea». (C Printzipio)

«Funtsezko eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan, gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasunean eta aukera-berdintasunean, eta ezgaitasunak dituzten pertsonen tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezan hezte». (B helburua)

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa (LOMCE)

«Hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen duintasun pertsonalaren aurkako jokabideak, generoan, sexu-orientazioan edo -identitatean, arrazan, etnialan, erlijioan, sinesmenean edo ezgaitasunetan oinarritutako diskriminazio edo eraso bat jatorri edo ondorio duten jokabideak, edo ezaugarri pertsonalengatik, sozialengatik edo heziketarekin loturiko ezaugarriengatik ahulenak diren ikasleen kontrako jokabideak». (124. artikulua)

2. Idazpuru hau eta hurrengo alda daitezke hezkuntza araudiaren arabera. Horrela, beharrezko gehiketak egingo lirateke onartu, aldatu edo araudi aldaketetara egokitzeko, batez ere, LOMLOE legea onartzea gertu dagoela.

Proposamen didaktiko (PD) guztietan lantzen diren Haur Hezkuntzako helburu orokorrak. (RD 1630/2006)

A. Bere gorputza ezagutzea, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikas dezan.

B. Familia-, natura- eta gizarte-inguruneari behatu eta horiek aztertzea.

C. Ohiko jardueretan, pixkanaka, autonomia handiagoa hartzea.

D. Bere gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzea.

E. Ingurukoekin harremana izatea eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarritzko arauak barneratzea, gatazkak modu baketsuan ebazten treba dadin.

F. Zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatzea.

G. Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hastea, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hastea.

Proposamen didaktiko guztietan lantzen diren Lehen Hezkuntzako helburu orokorrak. (RD 126/2014)

A. Bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutu eta balioestea, horien arabera jokatzeko ikastea, herritartasunaren jardute eraginkorrerako prestatu eta giza eskubideak errespetatzea eta baita gizarte demokratiko baten berriazko aniztasuna ere.

B. Gatazkak aurreikusi eta era baketsuan konpontzeko trebetasunak eskuratzea, familia esparruan eta etxekean eta baita harremanetan dauden gizarte taldetan ere autonomiaz aritzeko aukera izan dezaten.

C. Kultura ezberdinak, pertsonen arteko ezberdintasunak, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko eskubideak eta aukeren berdintasuna eta ezgaitasunagatiko pertsonen diskriminazioa eza ezagutu, ulertu eta errespetatzea.

E. Gaztelera modu egokian ezagutu eta erabiltzea eta, balego, Autonomia Erkidegoaren hizkuntz koofiziala eta irakurketa ohiturak garatzea.

F. Irudikapen eta adierazpen artistiko ezberdinak erabili eta ikus- eta ikusentzunezko proposamenak eraikitzen hastea.

G. Higienea eta osasuna baloratu, norberaren eta besteen gorputza onartu, ezberdintasunak errespetatu eta heziketa fisikoa eta kirola erabiltzea pertsona- eta gizarte-garapenari aukera emateko tresna gisa.

H. Nortasunaren alor guztietan eta besteekiko harremanetan, gaitasun afektiboak garatu eta bortxakeriaren, edozein motatako aurreiritzien eta estereotipo sexisten aurkako jarrera izatea.

«Mermel-en mundu arraroa».

Sustatzen diren helburu orokorrak.

Hizkuntza komunikazioa

Materialaren garapenak zera dakar: ahozko zein idatzizko mezuak ezagutu, ulertu eta baloratzea, hala nola, ipuinak, narrazioak eta jarduera anitzak.

Matematikarako gaitasuna eta Zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak

Proposatutako zenbait jarduerak zera dakarte berekin: alor eta egoera ezberdinetatik datozkigun arazoak ezagutu eta konpontzea, ikuspuntu ezberdinak interpretatuz eta komunikatuz, ingurumen natural eta sozialaren ezaguera guztiz kontuan izanda.

Gaitasun digitala

Formatu ezberdinetan argitaratutako materialak zera dakar berekin: hizkuntza eta euskarri digital ezberdinetan informazioa bilatu, aukeratu, ulertu, aztertu, sintetizatu, baloratu, prozesatu eta komunikatzea, informazioa bilatze, kontrastatze eta trukatzeko jarrera ireki batetik.

Ikasten ikastea

Norberaren ezagutzari buruzko gaiei, zailtasun eta aukerei, eta baita esfortzuari, interesari eta jakiteko nahiari ere dago loturik. Lan pertsonalaren estrategia artikulatzea lortu nahi du, plangintza eraginkorrak abian jartzean oinarrituta.

Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna

Burutu beharreko lana norberaren eta gainerako pertsonen ulertze eta balorazio kritikoari, identitate pertsonal eta komunitarioaren bilatzeari loturik dago, portaera arduratsu, orekatu, solidario eta demokratikora eramango gaituena, ingurune pertsonal eta sozialaren, beren balioen, eskubideen, beharren eta sentipen pertsonalen bidetik.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Berekin dakar ere, pertsona ezagutzeko garapena eta norberaren ezauzgarrien konfidantzaren eta balorazio positiboen bidetik, gainerakoen eta ingurumenaren begirunean, ezagutzan eta estimuan oinarritutako balio berriak sendotu eta eraikitzeke, taldeko eta banakako proiektuen garapena sustatuz.

Kontzientzia eta adierazpen kulturalak

Materialaren garapenak zera dakar berekin: garai edo gizarte talde baten ondarea osatzen duten ohiturak, bizimoduak, sentipenak eta ezagutzak ulertu eta baloratzea, eta baita lengoia ezberdinen bidez, pertsonalki zein kolektiboki, bere kultura transmititu eta adieraztea, berriztatuz eta eraldaketa sustatzen.

Materialaren helburu orokorrak

- Ikasleen garapen integralari laguntzea, konfiantzaren eta aniztasunen balorazioaren bidetik, berariazko eta banakako zein taldeko aberastasun bezala.
- Gelako aniztasun guztiei arreta ematea, agerikoei zein ikusten ez direnei.
- Ezberdintasunenganako arbuioa prebenitzea. (sexualak, funtzionalak, afektiboak, genetikoak, kulturalak, materialak...).
- Adin txikietatik hasita, sexismoa prebenitzea.
- Haurren garapena sustatzea, askatasunean mugimendua oztopatzen duen zama bezala generoa eduki gabe.
- Norberaren, inguruaren eta gertuko pertsonen zaintza bultzatzea.
- Berdinen arteko jazarpena prebenitzea.
- Ikuspegi zabal batetik, sexualitatean heztea.
- Berdintasunezkoak ez ezik eragin ekitatiboko aukerak ere eskaintzea.

Ikasleek lortu beharreko helburu orokorrak

- Giza aniztasuna ulertu eta aberastasun bide bezala asumitzea eta ez diskriminaziokoa.
- Pertsona ezberdinak daudela onartu, gorputz, kultura, gaitasun, etnia, sexu orientabide, genero identitate eta gizarte maila ezberdinak dituztenak...
- Pertsona guztiek eskubide eta aukera berdinak izan behar dituztela ulertzea.
- Normaltasun kontzeptua zalantzan jartzea, bere berariazko partikulartasunen baloraziotik eta onarpenetik hasita eta inor ez dela arau bakarretara atxikitzen ulertuz.
- «Nesken eta mutilen gauzak» daudela ulertzeak gauzen erdia galtzea dakarrela.
- Bere burua zaindu eta bere ingurua, bere berdinak eta hurbileko pertsonak zaintzea.

Helburu orokorrak.

LAN PROPOSAMENETAN ZEHAR IKASLEEK LORTU BEHAR DITUZTEN HELBURU OROKORRAK.

1. BLOKEA: NOLAKOAK GARA?

- ↘ Aniztasuna eta ezberdintasunak norberaren bizitzari dagozkion ezau-garri gisa eta bananako eta gizarte-hobekuntzari laguntzen dioten alderdi bezala.
- ↘ Elkar ulertzea, aniztasunaren alderdi bezala.
- ↘ Zapalketa eta pribilegioetara daramaten diferentziak daudela ulertzea beste pertsonen zapalketak saihesten ahaleginduta.

1. Proposamen didaktikoa: Koloreak, tamainak eta formak.

- ↘ Gorputz aniztasunak daudela ulertzea (larruaren kolorea, tamainak, formak...).
- ↘ Gorputz ezberdinen berezitasunak ezagutzea.
- ↘ Sexu-genereko aniztasunak ulertzea, gizon/emakume binarismotik harantz.
- ↘ Gorputz bat edo bestelakoa izateak ez lukeela pribilegiorik eman behar ezta opresioak eragin ere barneratzea.

2. Proposamen didaktikoa: Herria gara.

- ↘ Bere jatorria zein den ezagutzea.
- ↘ Ohitura ezberdinetako kultura anitzak daudela ulertzea.
- ↘ Kultura ezberdinak baztertzailerik ez direla ulertzea.
- ↘ Honako hau barneratzea: kultura bateko zein besteko partaide izateak ez duela inoren gainetik edo azpitik zaudela adierazten.
- ↘ Ongizate hiritar eta sozialaren eraikuntzan gizabanako bakoitzaren ekarpenaren garrantzia baloratzea.

3. Proposamen didaktikoa: Era ezberdinean funtzionatzen dugu. Zein ederki!

- ↘ Giza funtzio ezberdinak daudela (sentsorialak, motorrak, intelektuallak...).
- ↘ Funtzionamendu modu propioak ezagutzea.
- ↘ Berariazkoak ez diren funtzionamendu modu ezberdinak daudela ulertzea eta guztiak berdin baloratu beharko liratekeela.
- ↘ Funtzionamendu modu anitzek elkarrekin osatu, behar izan eta aberasten direla barneratzea.
- ↘ Gaitasunek ez gaituztela pertsonak bezala identifikatzen ulertzea.

4. Proposamen didaktikoa: Nik daukadanak ez du nire balioa adierazten.

- ↘ Erostea ahalmen ezberdinak daudela ulertzea.
- ↘ Ulertzea, pertsonok ez garela hobeak ala txarrak edukitze materialen neurriaren arabera.
- ↘ Gizarte funtzionamenduaren modu bakarra bezala, kapitalismoa zailantzan jartzea.
- ↘ Gai izatea, taldekako eta hiri-funtzionamendu beste eredu posibleak imajinatzea.

13. Proposamen didaktikoa: Maitasunak.

- ↘ Maitatzeko modu anitzak daudela barneratzea.
- ↘ Sexu orientazio ezberdinak daudela ezagutzea.
- ↘ Aldakor eta aldaberak izan daitezkeen sexu orientazioak daudela ulertzea.
- ↘ LGBT+fobia negatibotzat jotzea.

14. Proposamen didaktikoa: Familia gara.

- ↘ Bere familiaren, inguruaren eta gelakideen berezitasunak barneratzea.
- ↘ Jatorri ezberdinak eta norberarena ulertzea.
- ↘ Berea bezalakoa ez izateagatik familia ezberdinen berezitasunak edo ezaugarriak auzitan ez jartzea.
- ↘ Bere familia ereduaz, zeinahi izanda ere, harro sentitzea.

2. BLOKEA: EZ DUT GAUZETATIK ERDIA GALDU NAHI

- ↘ Bere garapen pertsonala sexismorik gabe, barneratzea.
- ↘ Binarista ez den edo era baztertzailan elkar ez ulertzea.
- ↘ Sexismoak garapen pertsonal eta sozial osoa mugatzen duela ulertzea.
- ↘ Sexuen arabera, ez direla genero rol ezberdinak izan behar bereganatzea.
- ↘ Sexu batekoa izateagatik, ez direla jarduteko era debekatuak egon behar ulertzea.
- ↘ Egoeraren arabera, rol egokienak onartzea eta ez sexuari edo generoari loturiko arazoaren arabera.

5. Proposamen didaktikoa: Zer jantziko dut?

- ↘ Jantziak arazo kulturala dela ulertzea.
- ↘ Jantzkerak binario edo sexista ez den moduan ulertzea.
- ↘ Barneratzea, janzkera sexu batekin zein bestekin lotzeak hautabideak mugatzen dituela.

6. Proposamen didaktikoa: Jolas orduan.

- ↘ Lanbideak ez direla sexuari lotuta izan behar gaiak jabetzea.
- ↘ Ulertzea, horretarako prestakuntza jasoz gero, edozein pertsonak izan dezakeela nahi duen lanbidea.
- ↘ Lanbideetan ez duela sexismorik egon behar barneratzea.

7. Proposamen didaktikoa: Jolastera baino ez goaz.

- ↘ Modu ezberdinetan jolastu / jokatu eta jostailu ezberdinekin aritzeko gai izatea, genero ezberdintasunak kontuan hartu gabe.
- ↘ Bakoitza, interesatzen zaion jolasean/jokoan jardun daitekeela asमितu eta baloratzea.
- ↘ Jolasek / jokoen eta jostailuek sexuarekin eta generoarekin ez dutela lotura zuzenik ulertzea.

- ↘ Gure sexu edo generoa edozein izanda ere, zernahi jolasean/jokoan aritzeko ikas dezakegula ulertzea.
- ↘ Mutikoentzat eta neskatoentzat jostailu eta jolas/joko berezirik ez dagoela barneratzea.

3. BLOKEA: ZANDU GAITEZEN

- ↘ Bere gorputza ezagutu eta gorputz ezberdintasunak errespetatzea.
- ↘ Mugak jartzen ikastea.
- ↘ Sexu abusuari aurkako estrategiak barneratzea.
- ↘ Zaintzaren garrantzia onartzea.
- ↘ Berdinen arteko jazarpenari kontra egitea.

8. Proposamen didaktikoa: Elkarri begiratzen diogu.

- ↘ Bere gorputzaren atalak eta helduenenak ezagutzea.
- ↘ Patologizantea eta binarista (maskulinoa | femeninoa) ez den ikuspegitik, aniztasun morfologiko-sexuala ulertzea.
- ↘ Gorputzen aniztasuna asumitzea.
- ↘ Sexualitateari buruzko galderak egiteko gai izatea.

9. Proposamen didaktikoa: Elkar zaintzen dugu.

- ↘ Pertsonok eta gizakiok zaintzeko dugun beharra identifikatzea.
- ↘ Nork berari, inguruari eta maite diren pertsonen emandako zaintzaren garrantzia barneratzea.
- ↘ Ingurumen jasangarriagoaren alde lan egitea.

10. Proposamen didaktikoa: Begira eizazu, errespetatu nazazu.

- ↘ Erasoaldiak eta abusuak indentifikatzeko gai izatea.
- ↘ Bere buruari ongi sentitzen uzten ez diona identifikatzen jakitea.
- ↘ Hurbileko pertsonen sentipenak komunikatu ahal izatea.
- ↘ Beren eskubideak eta, behar denean, laguntza nori eskatu behar zaion ezagutzea.

11. Proposamen didaktikoa: Ez ezetz da, zein hizki ez duzu ulertzen «E» edo «Z»?

- ↘ Bere sentipenak eta emozioak azaltzeko gai izatea.
- ↘ Bere gorputza berari dagokiola ulertzea.
- ↘ Beste pertsonen gorputzetan mugak errespetatzea, besteek beregan gauza bera egin dezaten.

12. Proposamen didaktikoa: Stop.

- ↘ Berdinen arteko jazarpen egoerak identifikatzea.
- ↘ *Bullying*-ari aurre egiteko bidea, modu aktiboan inplikatzeko delako onartzea. Ikusi eta isiltzea ez da bidea.
- ↘ Berdinen arteko jazarpenari aurre egiteko, laguntza sareak sortzea.

1. Koloreak, tamainak, eta formak.



Mermel

Ipuinen munduaren hastapenean, Mermel-ek ez zuen ilerik, ezta gorputz itxurarik, larru kolorerik eta tamaina zehazturik ere. Ipuinen munduaren hastapenean, Mermel-ek izan ez zuen, Mermel, soil-soilik zen. Behin, bere burua sortaraztea erabaki zuen arte.

Lehenik, ilea kizkurtzea erabaki zuen.

Askok aurpegiratzen zioten:

—Ile kiribila, espartzua!, zure aitak zartaginak garbitzeko zure ilea hartzen al du?

Beste pertsona batzuk, ordea, ile horrekin atseginagoa zela zioten.

Orduan, ausarta zen Mermel-ek, ilea kizkurtzea erabaki zuen;

itsasoko uhinen itxura zirudielako eta bere gainean ibiltzea oso

dibertigarria izango zela uste zuelako.

Gero, betaurrekoak eramatea erabaki zuen.

Askok aurpegiratzen zioten:

—Lau begitako, ñimiño, betaurrekoak izanda zure etxean ez

duzue edontzi-azpikorik behar izango, ezta?

Beste batzuk, aitzitik, bere betaurrekoetatik begiratu nahi zuten, ezberdin ikusten baitzen eta guztiz interesgarriago zirudielako zioten.

Orduan, Mermel-ek, aurretik pentsatuta zeukan bezala, betaurrekoak eramatea

erabaki zuen; horrela, haizeak ez zion begietan trabarik egingo bizikletan

zihoanean eta jendearen irribarrea hobeto ikusiko luke.

Geroxeago, gorputz potoloa izan behar zuela erabaki zuen.

Askok aurpegiratzen zioten:

—Mozkote, ipurdi gizen, pisuak arin ibiltzea oztopatzen dizula! Beste batzuk,

ordea, ekaitzari sendo eutsiko liokeela zioten

eta itsasoko olatuetan ur gainean mantenduko zela.

Orduan, Mermel-ek, zalantzarik ez zuela, neguan hotzik ez pasatzea eta bere

burua asko maitatzea erabaki zuen.

Ondoren, larru beltzarana izatea erabaki zuen.

Askok aurpegiratzen zioten:

—Kaka kiratsa, trapu zikina!

Beste batzuk, ordea, bere larrua arrastiriaren bezain goxoa zela zioten.

Orduan, Mermel-ek, aurretik erabakita baitzeukan, larru beltzarana izan nahi

izan zuen, bere historia inork ezaba ez zezan.

Azkenik, Mermel-ek ez neska ez mutil izatea erabaki zuen.

Pertsona askok aurpegiratzen zioten:

—Marimutil, maritxu, zu zer zara mutila ala neska?

Beste batzuk, ordea, bera zena izateko eskubidea zeukala ziurtatzen zuten.

Orduan, Mermel-ek, aurretik guztiz erabakita zeukala, ez mutil eta ez neska izatea

lortu zuen eta baita nahi zuenera jolastu ere, egin behar zuena inork esan gabe:

bero zegonean, gonaz jantzi, jolastu nahi zuenean galtzak eta egoera dotoreetan

urkilak eta gorbatak eraman eta, ooren gainetik, izan nahi zuena izatea.

Horrela, Mermel-ek edukitzea eta izatea lortu zuen.

Orduan Mermel, zoriontsu, lagunuen eta familia baten bila irten zen.

Hemen eta orain hasiko da bere abentura.



ZER MAITE DUZUE NIGAN?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



1. Koloreak, tamainak, eta formak.



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

- ↘ Bere familiari edo berarekin bizi diren pertsoneri, hurbilekoak zergatik maite dituzten galde-tuko die eta fitxa honen aurrealdean erantzuna jarri. Ondoren, gelan, bateratze-lana burutuko da.
- ↘ Gelako bateratze-laneko elkarrizketak zera ulertzea bideratuko dira: gure familiak ez gaituela maite gure fisikoarengatik, baizik eta gure barrua nolakoa den baloratzen dutelako eta gure ekintzengatik.
- ↘ Jarduera liburu bidaiari bezala enfoka daiteke.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA

Ipuina ozenki irakurri eta ondorengo galderak egingo dira, eztabaida moduan, talde edo gelaren beharretara egokituz:

- ↘ Zergatik daude Mermel iraintzen duten pertsonak? Zergatik sartzen gara jendearekin?
- ↘ Gorputzean zein ezaugarri dugu?

Muturrekoak bezala, kontrakoetatik has daiteke (pisutakoa, altueratakoa...) orok osotasun baten zati garela ideia azpimarratu. Guztiz funtsezkoa da, finkatuta geratzea zein ezberdintasunek ez gaituela hobeak eta txarrak egiten, ezberdinak baino ez, eta gizartea, gure adiskideak, gure familia eta gure inguru gertuena aldatzeko ezberdintasuna ezinbestekoa dela. Ikustaraz dezakegu pertsona berberaren gorputza ere, bizitzan zehar, ezaugarriez aldatzen doala eta horiek errespetatu egin behar direla.


- ↘ Beste pertsonak atsegintzeko, zugar zenbait gauza aldatzea onuragarri al da?
- ↘ Hamar urteren barruan, zer uste duzue pasa daitekeela?
- ↘ Zer egingo zenukeen Mermel izan bazinateke?, nola izatea gustatuko litzaizueke?

Besteen aurrean azaltzeko, gorputz eta modu ezberdinak daudela ideiatik abiatuta, batzuk besteekin alderatu daitezke, honako galderen bidez: zeintzuk dira zorionsuago ilea kizkurra ala leuna dutenak?, betaurrekoekin ala gabe?, etab... Zeinek konpontzen ditu hobekien arazoak?

- ↘ Gaitzizenak zer diren badakizu?, hemengo norbaitek ba al du batekorik? Funtsezkoa izango da azpimarratzea zenbaitetan gaitzizenek ez gaitzuztela nahigabetzen eta bestetan berriz, kalte egin diezaguketela.
- ↘ Nola deitza gustatzen zaigu? Eta nola ez deitza?

Jarduera bukatuko da honako hau zehazten: izaera asko daudela eta, fisikoki edozein modutakoak izanda ere, pertsona guztiak errespetatu behar ditugula. Garrantzitsua da, aipamen esplizitua egi-tea gorputzen ezberdintasunei, lodiagoak, argalagoak, altuagoak, txikiagoak, larru, begi, ile kolore ezberdinak..., osagai positibo gisa, ezberdintasun etnikoetan azpimarratuta eta nabarmenduz pertsona bakoitza den bezala dela. Garrantzitsua da ere, jakinaraztea historian zehar edertasun kanonak aldatu egin direla eta, beraz, arazo kultural garbia dela eta, benetan garrantzitsua dena, gorputz errealitate guztiak balioetsi eta beste pertsonak onartzea gorputza baino gehiago den zerbait bezala. Ezinbestekoa da une honetan, irainen kontua aztertzea eta zera azpimarratzea: arazo fisiko edo etnikoengatik pertsonak iraintzea ez dagoela ongi, pertsona erasotzen ari baikara eta min egin diezaioketelako eta ezaugarri fisiko batek ez duelako iraina izan behar. Funtsezkoa da ikasleek barneratzea norberak bere burua den bezala maite behar duela eta gauzak egiten baditugu beste pertsonak atsegintzeko, inoiz ez dugula mundu guztia atseginduko.

1. Koloreak, tamainak, eta formak.



1. Koloreak, tamainak, eta formak.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



2. JARDUERA

Proposatutako jarduera, burutu daitezkeen aukera guztien adibide bat besterik ez da. Jarduera aske baten bidez, ikasleak bultzatuko dira bere sormena garatu dezaten. Bere Mermel marratzuko dute bere gustuen edo nola izan daitekeen imajinatzen diren arabera. Azkeneko herriaren fitxan itsatsi ahal izango da.



3. JARDUERA

Mermelen irudiarekin eskuko txotxongiloa egingo da, ipuinean deskribatzen diren bere ezaugarri fisikoekin (ilea, betaurrekoak, larruaren kolorea, gorputza). Halaber, ikasle bakoitzak bere irudiaz txotxongilo bat egin dezake. Ondoren, txotxongiloekin ipuinak antzetzuko dira azpimarratuz gure burua maite behar dugula eta beren ezaugarri fisikoengatik besteak ezin ditugula auzitan jarri.

BALIABIDEAK: Koleretako feltroa, itsasgarria, hondakinerako materiala edo birziklatua garapen ja-sangarriari laguntzeko.

2. Herri gara.



Mermel iristen den herria berezia da, adin guztietako jendea bizi da eta bertan pertsona guztiek berdin agintzen dute.

Familia bakoitza nahi duen lekuan bizi da, eraikuntzetan, etxeetan eta txaboletan, mundu guztia entretenitzen da.

Bakoitza, nahi duen erara janzten da, udara, udazkena, negua zein udaberria izan, pontxoaz, kaftanez, gonaz eta galtzez, guztiak kolore anitzez brodatuak.

Mermel-en herrian jatekoak era askotarikoak dira, haziak ereiten dituzte eta baita azokara joan ere. Eta, lekuren batetara heltzeko, ibaian, lurrean, airean zein itsasoan zehar joan daitezke.

Mermel-en herrian, festak ospatzen dituztenean, dantzan eta abesten aritzen dira eta baita siesta egin ere. Herri honetan pertsona guztiak sar baitaitezke. Koloreak, tamainak eta itxurak askotarikoak dira leku honetan.



OHITURAK PARTEKATZEN DITUGU

- 1** Idatzi edo marraztu (zu zeuk edo zurekin bizi diren edozeinek), asko gustatzen zaizun eta sukaldatzeko erraza den plater tipiko baten errezeta. Platera nola egiten den pausoz pauso azaldu behar da.
- 2** Zure familiaren, herri edo hiriko ohitura tipiko batean pentsatu eta horren argazki adierazgarria bilatu.



2. Herri gara.



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Errezetekin:

- ↳ Taldearen-gelaren errezeta liburua egingo da, familia bakoitzak ekarritako errezetekin.
- ↳ Arratsalde batean, sukaldatu ahal izango dira gelan edo ikastetxearen sukaldean errezeta errazenak.
- ↳ Festa bat antola daiteke eta haur bakoitzak bere etxean egindako plater bat ekarriko du partekatzeko.

Gelako bateratze-lanean izandako elkarrizketetan azaldu ahal izango da gizona zein emakumezkoak eta gainerako pertsonak gai direla sukaldatzeko, nola egiten den ikasten ahale-gintzen badira eta, gure gustua aberasteko, oso garrantzitsu dela zapora ezberdinak ezagutzea.

2. Ohiturekin:

- ↳ Liburu bidaiari bat burutu daiteke jatorriz antolatutako ohitura familiarrekin.
- ↳ Garrantzizkoa izango da gelako kultura, festa, egiteko era... ezberdinak gelaratzea, horietako bat hegemoniko edo nagusizat hartu gabe.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA

Ipuina ozenki irakurriko da eta, eztabaida moduan, ondoko galderaren batzuk planteatu daitezke, taldearen-gelaren beharrei egokituz.

- ↳ Halako herrian bizitzea gustatuko litzazueke?
- ↳ Zein alderdi positibo / abantaila / eta gauza on du?
- ↳ Zein alderdi negatibo / eragozpen / eta gauza txar du?
- ↳ Uste duzue munduan halako lekuri badagoela? Non?
- ↳ Horrelako herri bat izateko zer aldatu beharko litzateke gure gizartean?
- ↳ Zein alderdi dira ezberdinak gure herri edo hirian?
- ↳ Zein alderdi dira ezberdinak gure ikastetxearen geletan?



2. JARDUERA

Bakoitzak herri bat egingo du dituen materialekin (esne kaxak, kartoiak, hondakin materialak...) Ondoren, mahai zabal batean edo lurrean jarriko dira eta sortutako guztiarekin herri bat osatuko da. Izena jar dakioko eta izango dituen arabei buruz hitz egingo da, zein gauza egin eta zein ez, taldean sortutako herri honetan.

Garrantzitsua izango da azpimarratzea, era positiboan kolektiboaren kudeaketarekin eta kontzeptu demokratizailearekin zerikusia duten alderdiak.

3. JARDUERA: Gure gela herri bilakatuz!

Gelakide guztien artean herriari izena jar dakioko. Ondoren, gela barruan, herria antzez daiteke. Egun horretan nahi duten arropa jantzi eta kultura ezberdinen osagai ezberdinak irudika ditzakete, hala nola: jantziak, etxebizitza, janariak, garraioa, dibertsio erak eta ezaugarri fisikoak, jantzi bakoitzari esleitutako generoa kontuan hartu gabe; bakoitzak nahi duena jantzi dezala.

BALIABIDEAK: Jantzi ezberdinak, etxeak edo garraio bideak marrazteko paper jarraituak, kartoiak auzo baten zati ezberdinak egiteko eta plastilina edo buztina, jateko plater ezberdinetarako. Ordezka daitezke botatzeko edo birziklatzeko materialekin.

3. Era ezberdinean funtzionatzen dugu. Zein ederki!



Superkoadrila

Horren berezia den leku honetara Mermel iristen denean, etxe bakarra dago hutsik, eta bertan bizitzera sartzeko proba bat gainditu behar du. Atea irekitzen duen giltza aurkitu beharko du. Mermel-ek badaki, laguntzarik gabe ezin dezakeela hori lortu. Bere adineko sei pertsonaz osatutako talde batera jotzen du.

Hurbildu ahala, horien solasaldia entzuten du:

—Kokoteraino nago, Down sindromea dudalako, jendeak ustea aldiro pozik egon behar dudala! —dio Polchi-k.

—Niri, ijitoa naizenez, jende guztiak abestea eskatzen dit, nik abesten jakingo bainuen!

—Arrazoi duzu, Fer —dio Kriscar-ek—, ni itsua naizenez eskutik heltzen didate kalea gurutzatzeko, nik ez eskatu arren.

—Kaixo! —mozten du Mermel-ek—, zein da zuen izena?

Polchi, Peca, Mebe, Kriscar, Pitu eta Fer, erantzuten dute.

—Ni Mermel naiz, herri honetara etorri berria naiz eta etxe honetan bizi nahi dut baina, horretarako, giltza aurkitu behar dut. Lagunduko didazue?

—Pitu, joan zaitezke azkar giltzaren bila? —dio Mermel-ek.

—Arazorik gabe! Igo nire gurgil-aulkira eta berehala iritsiko gara. Kriscar-ek oihukatzen du: Giltzaren tintin-hotsa entzuten ari naiz!

Badirudi txori bat bere mokoaz giltza mugitzen ari dela!

—Hor dakusat —dio Mebe-ek keinu-hizkuntzan—, zuhaitz horren adaburuaren barrutik distira datorkigu!

—Goazen, Mermel —deiadar egiten du Peca-k—, ez zaitez atzean geratu! Eta Mermel-ek, zuhaitzerantz korrika, dio: Txoriak eraman baino lehenago, igo gaitzen zuhaitzera.

—Lasai! Zuen oharpenez zuhaitzera igo gara eta giltza badugu —oihu egin zuten Polchi eta Fer-ek, emozio osoz, giltza eskuan zutelarik.

Mermel-ek, orduan, pentsatu zuen: Koadrila honek zoratu egiten nau. Horren ezberdinak izanik taldean lan eta gauza-piloa egin ditzakegu.



NIRE FAMILIA EZAGUTZEN

1 Zure familiako bakoitzak zer egiten du hobekien?

.....

.....

.....

2 Ikusten nauzu, ez nauzu ikusten: egin dezagun alderantziz.

.....

.....

.....



3. Era ezberdinean funtzionatzen dugu. Zein ederki!



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Haur bakoitzak bere familiako edo berarekin bizi diren kideak irudikatuko ditu (argazki baten, izena idatziaren edo marrazki baten bidez) eta alboan jarriko du bakoitzak zer egiten duen hobekien (hau ere hizkiez, marrazkiez edo argazkiez egin dezake ere).
2. Etxebizitzako partaide bakoitzak arratsalde batean zehar burutzen dituzten bere rolak edo bete-kizunak alda ditzakete. Ondoren, gelan, bateratze-lanean zer gertatu zen azalduko da.

Aberasgarri litzateke taldeko lana antolatzea, pertsona bakoitzak dakartzan zereginei buruz (personalizatu gabe). Gelako eztabaidan komentatu ahal izango da, genero bakoitzari sozialki esleitu-tako rolak mugatzaileak direla eta kokapen hierarkizatzailean jartzen gaituztela.

Badira pertsona batzuk, eta besteek ez, egin ditzaketen gauzak: Agian, gurpil-aulkian doan pertsona batek apalategi altu batetik ezin izango ditu gauzak hartu, beste batek, ordea, zorabiatu egi-ten delako (baina, biek ongi sukalda dezakete), haurtxo batek ezin ditzake adineko pertsonak eta agureak zaindu, ezin dezake pisu handirik hartu, baina, esaterako, etxeko alaitasuna izan daitezke, esate baterako. Horregatik, guztiz garrantzizkoa da ikustaraztea guztiok etxeko egunerokotasuna-ri ekarpenak eginen dizkiogula, trebetasun ezberdinez: zaintzak, maitasuna...

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA

Ipuina ozenki irakurriko da eta ondoko galderok planteatuko dira, eztabaida moduan, taldearen / gelaren beharretara egokituz:

- ↳ Ezagutzen al duzue ipuinaren pertsonen antzeko ezaugarriak dituen norbait?
- ↳ Pertsona bat, gauzak modu batez edo bestez egiteagatik, hobe edo txarra al da?
- ↳ Zer da garrantzitsuena pertsona bat gure laguna izateko?
- ↳ Haur bakoitzak zer den hobekien egiten duena azalduko du eta eztabaida bat sortuko da ezber-dintasunak elkartuz gero egin daitekeen guztiari buruz.



2. JARDUERA

↳ Banaka, esan, abestu edo idatzi beharko dute gelako gainerakoen kalitate positiboren bat. Kartulina bat egon daiteke bakoitzarentzat, bertan argazkiak edo piktoak itsatsi edo berari buruzko zerbait positiboa idazteko.

↳ Pegatinak erabiliko dira, bestelakoak ez izanez gero, paperez eta zeloz egindakoak; kalitate positiboak dituzten jantzetan gorputzaren zati guztietan jartzeko; horrela egunaren bukaeran gor-putz osoa irakurri daitezkeen kalitate positiboek beteta egongo da.



3. JARDUERA

↳ Irakasleen laguntzaz, taldeka, ikerketa txiki bat egin daiteke, zertan dira gai ongi egiteko eta zertan ez.

↳ Pertsona bakoitzarengan gauza positiboak bilatuko dira, bakoitzaren ezaugarriak edozein izan arren, azpimarratu beharreko zerbait positiboa zehaztuko da, enpoderamenduaren eta erre-ferentzia positiboaren bila.

↳ Taldeka, giza makina antzeko zerbait egingo da (gelako tresnak, material ortopedikoak, sani-tarioak, botatzekoak...) eta mugitu eta jokatzeko forma berriak irudikatu.

4. Daukadanak, ez du balio dudana adierazten.



Truke eginez

Herrian egun aparta da asteazkena,
inork ez du hutsik egin nahi, trukearen eguna baita.
Errementari andereak metalezko objektuak daramatza,
urtzen ditu eta edozein objektu eman diezazuke.
Okinak ogiak eta pasteltxoak daramatza,
ortuzainak barazkiak,
eta elkarrekin guztia oso goxoa da.

Trukaketa honetan zerbait aldatu nahi baduzu,
sosik ez erabili, aizu!
Abestiak, masajeak besarkada edo jantziak eman
eta, ordainez, erabili behar duzuna
eramango duzu.

Horrela Mermel-ek bere etxebizitza altzariz jantzi ahal izan
zuen, trukean aritzeko beregaitasunak eskaintzen.



ETXEKOA TRUKATZEN

- 1 Zein objektu duzu etxean erabiltzen ez duzuna?
Zure etxekeekin komentatu eta, erabiltzen ez duzun objekturen bat,
gelara ekarri.

.....

.....

.....

.....



4. Daukadanak, ez du balio dudana adierazten.



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Maistrak erabakitako egunean, haur bakoitzak etxean izan eta erabiltzen ez duen objekturen bat ekarriko du gelara. Egun horretan, gelan trukatzeko azoka egingo da eta haur bakoitzak bere objektuak aldatuko du gustatzen zaion beste batekin. Eraman ditzakete jantziak, jostailuak, liburuak... Saiatuko dira objektu bat baino gehiago eramaten, trukaketan inor ezer gabe gera ez dadin. Objektuak aldatu ahal izango dira ere materialak ez direnekin, hots, masaje bat, abesti bat...

Funtsezkoa izango da bateratze-lana egitea botatzen ditugun gauza kopuruari edo dauzkagula ez dakigunei edota birzikla ditzakegunei buruz. Azpimarratu beharko da inor ez dela gehiago edo gutxiago dituen objektuen arabera eta garrantzitsuena maitasuna dela, hau ez baita hondatzen eta beti baitirau.

2. Beste proposamena, Denboraren Bankuaren eguna sortzea litzateke non, partaide bakoitzaren inguruko norbaitek trebetasun bat -egiten jakin edo dakien zerbaitez- aldatzen duen nahi edo behar duen beste batez. Ikastetxean egun bat zehaztuko da trebezia eta jakiteak trukatzeko, adibidez (ama batek beste baten kotxea konpondu ahal izango du eta, ordainez, honek haren semeari etxe-ko lanak egiten lagunduko dio astebete batean).



GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. JARDUERA

Ipuina ozenki irakurriko da eta galderak planteatuko dira, eztabaida moduan, taldearen-gelaren beharretara egokituz.

- ↳ Zein altzari behar dira etxe batean?
- ↳ Zein beharko luke Mermel-ek bere etxearentzat?
- ↳ Zuen ustetan, zein trebetasun eskaini zituen Mermelek altzariak lortzeko?
- ↳ Zein trebetasun eskaini ote zuten taldeko guztiek?
- ↳ Zein beste lanbide parte har zezakeen trukean?
- ↳ Gauza asko dituzulako, pertsona hobea edo gehiago balio duzu?
- ↳ Gelan dauzkagun objektuetatik zeintzuk balio dezakete beste gauza batetarako? Eta etxean dauzkagunetatik? Bizi gaitezke hainbeste gauzarik gabe?
- ↳ Bizitzeko zein gauza dira beharrezko?



2. JARDUERA

Altzari bakoitzaren marrazkiaren gainean, partaide bakoitzak hura egin izaten den materiala itsatsiko du. Adibidez:

- ↳ Mahairako egurrezko makiltxoak.
- ↳ Oihal zati bat oherako.
- ↳ Plastikoa leihorako.
- ↳ Etab.

Ondoren, marrazkia moztuko du eta herriaren bukaeran itsatsiko du.

Botatzeko materialekin baino ez, gela bat eraiki daiteke, bereziki, plastikoekin, ingurumenaren ja-sangarritasunari buruzko kontzientzia suspertzeko.



3. JARDUERA: Trebetasunak trukatzeko

Aurreko jardueretan edo daramagun ikasturtean zehar gelakideengan ikusitako gaitasunekin truke bat egingo da gelan. (masajeak, dantzak, kriskitinak, ipuinak kontatu, mimikaz estatua bat irudikatu, barre arazi...). Kultura ezberdinekin zerikusi duten trebetasunak ekar daitezke eta, trebetasunak genero binarioen arabera ez zatitzearen garrantzia sustatu.

Solasaldiari hasiera eman dakioke ditugun trebetasun kopuru handiari buruz hitz eginez. Komenta dezakegu eta jolastu, dirurik eskatzen ez duten gauzetara, generoaren arabera zatiturik ez dauden jolasetara / jokoetara eta gero guzti hori baloratu. Garrantzizkoa da haurrek ulertzea dirua ardatzean ez jartzeak ekitate eta lankidetzaren handiagoa dakarrela.

Era berean, trebetasunak bizitzan zehar eskura daitezkeen ideia landuko da. Hala nola tresnak jo, pintatu, antzerkia egin edo objektuak konpontzea... Lana eta ahalegina egin ezker dena lor daiteke.

5. Zer jantziko dut?



Gaur, nire lehen eskola-eguna da. Ez dakit garbi zer jantzi, daukadan arroparen artean begiratuko dut zein datorkidan hobekien.

NIRI Ez zait jendeak esan dezakeena axolik, ez zaizkit koloreak axolik, ez zait moda interesatzen eta berdin zait neskarena edo mutilarena direla esaten badute ere. Axola zaidana zera da: jolastu, abestu, barre egin eta dantzatzeko askatasuna. La, la, la.

Gustukoen dudan jantziast hasten naiz. Biratzen naizenean, badirudi hegan ari dela. Oinak agerian eramatea maite dut, ibiltzean haizeak kilimak egiten baitizkit, baina, uste dut parkeko jolasetan deserosotasuna senti dezakedala.

Jolastu, abestu, barre egi eta dantzatu, la, la, la.

Orain *blue-jeanak*, kamiseta eta txapela probatzen ditut. Galtzak zertxobait eroriak dira eta kamiseta urdina eta zabala. Oso erosoak iruditzen zaizkit jolasteko, baina zertxobait aspergarriak.

Jolastu, abestu, barre egin eta dantzatu, la, la, la!

Uste dut badaukadala! Oraindik estreinatu gabeko bota moreak, trukaketan aldatu nituen galtzekin eta mahukarik gabeko kamiseta koloredunarekin batera.

Jolasteko, abesteko, barre eta dantza egiteko balio dit. La, la, la!

Nahi dudan guztia betetzen du, kolore alaiak dira eta jolasean eroso nabil... Zer gehiago eska dezaket nire lehen eskola egunean?



NOLA JANZTEN ZUTEN LEHEN?

- 1 Nola janzten zuten zure aitona-amonek gaztetan edo zure inguruko adineko edozeinek? (Idatzi, marraztu edo argazki zaharren bat jar daiteke.)

5. Zer jantziko dut?



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Haur bakoitzak bere etxekoei, antzinean aiton-amonen janzkerari buruz galdetuko die. Beren laguntzaz, mozorro-jantzi bat egingo du antzinako janzkera hori islatzen duena eta horrekin mozortuta joango da gelara maistrak erabakitako egunean. Garrantzitsua da haurrek nola jantzi nahi duten aukeratu eta bere generoa kontuan hartu gabe bere jantziak sortu ahal izatea.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA: Zer jantziko dut?

Ipuina ozenki irakurri, berari buruzko galderak egin, unitatearen hitzaurre bezala:

- ↳ Eskola lehen egunean, zein jantzi zeraman Mermel-ek?
- ↳ Haur bakoitzak zein jantzi zeraman?
- ↳ Zein da bere jantzi gustukoena?
- ↳ Ba al da mutikoei baino ez erabil dezaketen jantzirik edo neskatoak soilik eraman ditzaketenik, edo ez neska ez mutil sentitzen direnak daramatzatenak? Zergatik? Nork agintzen du hori?
- ↳ Eskolara joateko jartzen dugun jantzietatik zer da garrantzitsua?
- ↳ Jartzen dugun arropetatik zer da kontuan hartzeko garrantzitsua? Uler dezaketen neurrian, alderdi hauei buruzko azterketa egin daiteke: arroparen jatorria, zein materialetan dagoen egina, nork egin eta saltzen duen, nork garbitu eta plisatzen duen. Hau guztiarekin komikia edo bineta bat egin daiteke.

Garrantzitsua da, eztabaida ondorengo honetan finkatzea: egoera bakoitzak jantzi egokia eskatzen duela eta ez dagoela mutilentzako arropa bat eta beste bat neskentzat. Adibidez, gona edo antzeko arropak, antzinean inkek zerabiltzaten eta, egun, Eskoziako, Birmaniako edo Maroko-ko mutikoak eta gizonak ere daramatzate.



2. JARDUERA

Fitxan Mermel agertzen da erdijantzita eta kolorerik gabe. Mermel marrazten bukatu beharko da, moztu eta materialaren atzealdean itsatsi. Margotu daiteke edo oihalak itsatsi jantziak bailiran.



3. JARDUERA: Historian bilatzen

Interneten, liburuetan edo beste iturrietan (etxean galdetuta...) informazioa bilatzea, ondoko galderari erantzuteko aukera izateko:

- ↳ Bere herriko / hiriko biztanleek antzinean zein janzkera zuten?
- ↳ Zein da zaharrena, galtzak ala gona?
- ↳ Noiz hasi ziren galtzak erabiltzen eta zergatik?
- ↳ Zergatik uste dute gona galtzak baino lehenago asmatu zela?
- ↳ Gona, zein garaitan, erlijioetan eta herrietan erabiltzen zen edo da, gizonezkoen zein emakumezkoen jantzi gisa? Zer gertatzen da binarioak ez diren pertsonekin?
- ↳ Kulturalki egotzi zaionaz aparte, arropa beste modu batez erabil daiteke?

Maistrak ideia hau finkatzen saiatu beharko da: janzkerak ez duela gure generoa zehazten eta haurrek nahi duten bezala jantzi dezaketela, horregatik, erasoak eta irainak jaso gabe. Daramagun arropa, eroso eta ondo sentiarazteko aukeratu behar dugula.

6. Jolas orduan.



Nire eskolako patioa
gutziz berezia da,
dantzarako pista dauka
eta partxisean ibili ahal da.

Gune irekia dauka korrika egiteko eta egiteko,
beste bat barazkiak jasotzeko.

Guztiok ongi pasa genezake,
Hitz egin, jolastu eta, batik bat, barre egin baitaiteke.

Jolasten, eta jolasten adinezkoak imajinatzen gara.

Fer-ek futbolari izan nahi du, baloia trebeki jaurtitzen baitu.
Peca-k dantza maite du, hip hop-a ezin hobetzat jotzen du.
Pitu postari azkarra da, zintarri kaltegarri hori kendu egin
behar da! Kris-car-ek beroa detektatzen du,
etorkizunean suhiltzaile izan nahi baitu.

Polchi aktore da eta zuzendari ospetsu batek deitu dio.
Mebe-k atsedena noiz hartu erabaki nahi du
eta egunen batean mundua aldatuko da.
Mermel kezkatu dago,
ez du bere burua inolako lanbidean ikusten.

Ring, ring, tirrinak jo du!
Bukatu da, gelara itzultzen gara,
datorrena datorrela, ikasi egin behar da.



JARDUNAK

1 Zure familiako helduek zertan egiten dute lan?

Zure familiako helduek dituzten lanbide edo jardute guztietatik aukeratu gehien gustatzen zaizuna eta, ondoren, marraztu, idatzi edo argazki bat atera.

6. Jolas orduan.



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Haurrek beren familiakoei galdetuko die zein lanetan aritu eta ari diren edo zertan lan egitea gustatuko litzaiekeen, etxean zein kanpoan, eta etxeak esango dieten lanbideen artetik gehien gustatzen zaiena marraztu, idatzi edo fotografiatuko dute eta, azken hau aukeratuz gero, argazkia itsatsiko du (aukeratu dezake ere aurretik egindako argazki bat edo aldizkari batetik hartutakoa).
2. Gelan, lanbide ezberdinak aztertzeiko aukera izango da eta baita ea beste pertsonen, beste generoko pertsonen egin zitzaizkaten ere...
3. Langabezia ere izango da aztergai: eta egoera hori nola bizi den, ikaslearen ikuspuntutik zein familienetik. Ulertarazi behar zaie, langabezian egotea ez dela gauza txarra edo jasaten duena estigmatizatu edo errunduntzen duena, baizik eta bat-batean etorritako egoera dela, eta egoera horretan egoteak ez duela esan nahi langabetuak lanbiderik ez duenik.
4. Etxean zein kanpoan egiten diren lanak daudela azpimarratu, ordaintzen ez direnak, mundu guztientzat garrantzitsu izan arren.

Etxekoren bat edo sozialki bere sexuan ohikoa izaten denarekin bat ez datorren lanbidea duen beste pertsona etor daiteke (adibidez, emakume suhiltzailea, garbiketako gizona bat...) eta pertsona hori elkarriketatu. Egingo zaizkion galderak: zer egin behar izan zuten lanbide horretara iristeko, gustatzen zaien ala ez eta zergatik...



GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. JARDUERA

Ipuina irakurri. Ondoren, galderak egin, unitatearen edukien hitzurre gisa.

- ✎ Protagonistei zertan jolastera atsegin zaie? Nork nahi du suhiltzaile izan? Eta sendagile?...
- ✎ Zein jolas duzue gustuko? Uste duzue, nahi duzuen izatea lortuko duzuela? Hemendik 20 urtera zer gertatuko da ipuinaren pertsonaiekin? Zuen ustez, Mebek astean hiru egunetan lan egitea erabaki ahal izango duela?
- ✎ Ipuinaren lanbideetatik abiatuz, hauek elkarrekin alderatuko dira honako galdera hauen bidez: Mutil bat, mutila izateagatik, sendagile hobe izango da? Zergatik? Neska batek mutilak baino hobeto dantzatuko du? Ba al da lanbiderik gizonetakoekin egin ez dezaketena? Eta emakumeetakoekin? Galdera hauetatik abiatuta garrantzitsua da ikasleei jakinaraztea edozeinek bete dezakeela edozein lanbide, horretarako prestatu eta saiatzen bada; ez dagoela gizonetakoekin edo emakumeetakoekin lanbide eksklusiborik.
- ✎ Langabezia arazoa landuko da haurrek azal dezaten zein eragin duen beregan. Jakinarazi beharko diegu ere langabezian egoteak ez duela esan nahi lanbiderik ez duenik eta lan guztiek guztiz garrantzitsuak direla.
- ✎ Horren ikusgarriak ez diren beste lanbideak ere txerta daitezke, hala nola, laborantzakoak, ingurumenezkoak, garapen jasangarriari buruzkoak eta aztertu beharko da ere ingurumenaren zaintza gaia, klima-aldaketa egoerak saihesteko.
- ✎ Emakumeek eskuarki egiten dugun enplegu ordaindu gabea azpimarratzea ere, guztiz garrantzitsua da eta baita etxeak zaindu, garbitu eta mantentzeko loturiko guztia ere. Ulertu behar dute lan mota hauek ezinbesteko garrantzia dutela eta pertsona guztiek ahal eta egin behar dutela, sexua edozein izanda ere eta ez dela emakumeen betekizun eksklusiboa.
- ✎ Binarioak ez diren pertsonen zer gertatzen den azalduko da. Ezingo lukete lanik egin? Garrantzia emango diegu azterketari, ahaleginari eta etengabeko lanari nahi duena izateko, eta baldintzatuta mutilena ala neskena den.

6. Jolas orduan.



6. Jolas orduan.



GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

2. JARDUERA

Haur bakoitzak bere burua marraztuko du pertsonaien ondoan, etorkizunean izan nahi edo gehien gustatzen zaion lanbidea aukeratuz. Marrazki osoa edo gehien atsegin zaion pertsonaiarena moztuko du eta herriaren azken fitxan jarri.



3. JARDUERA: Lanbideen txokoak

Gela txokotan zatituko da: irakaskuntzarena, osasunarena, jasketarena, ile-apainketarena, mekanikarena... Haur guztiek txoko bakoitzetik pasa beharko dute eta zer egin eta non pasa duten hobekien komentatu.



4. JARDUERA: Helduen mozorroak

Haur bakoitzak zein lanbidetan ari nahi duen aukeratuko du eta horretaz mozorrotuko da. Gela lanbide festa egingo da. Lanbidez aldatzeko aukera izango dute, ikusten bada, sexua-
ren arabera, aukeratutakoak zertxobait desitxuratuta geratu direla.

7. Jolastera baino ez goaz.



Gaur nire urtebetzea da.
Zerbait oparituko didate?
Erabat urdurik nago!
Ez baitakit zer ekarriko didaten.

Polchi-k baloia dakar,
jaurtitzen aritu gara.
Erabat atsegina!




Peca-k panpina dauka, eta, asko hazi
eta etorkizunean nahi duen guztia izateko
ematen diogu janaria.

Pitu-k patina dakar,
gainean jartzea uzten dit
eta azkeneraino iritsi gara.

Mebe-k urkila batzuk dakartza,
buruan jarri
eta kilimak egiten dizkigute.

Fer-ek klarionak dakartza,
partxis bat marrazten
eta barrea eragiten digu.

Baina gehien atsegin zitzaidan oparia
asmatu genuena izan zen.
Zer gertatu zen jakin nahi duzue?
Ez genuen sosik gastatu eta bai ongi pasatu.



JOLAS TRADIZIONALAK

- 1 Zein jolas / joko tradizionaletan aritzen ziren zure familiako helduek haurtzaroan?
Marraztu, idatzi edo argazki edo pikto bat itsatsi, haurtzaroan familiakoek erabiltzen zuten jolasa / jokoa deskribatzen duena.

7. Jolastera baino ez goaz.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA: Jolastera baino ez goaz!

Ipuina irakurri eta, ondoren, berari buruzko galderak egingo dira, unitatearen edukien hitzaurre gisa. Jarduera honetan maistrak eta ikasleak elkarrekin hausnartuko dute jolas dezaketen jolasei / jokoei buruz, honako ideia transmititzen saiatuz: ez daudela mutilen jolasak eta nesken jolasak. Ondoko galdera hauek egin daitezke:

- ↳ Zertan jolasten atsegin zuen protagonistak? Zein opari mota egin zioten? Opari horiekin zertara jolas / jokatu daiteke?
- ↳ Zein opari esango zenuke mutilenak direla eta zein neskenak? Zergatik? Jolasen / jokoren batean jolastu / jokatu nahi izan duzu eta ez dizute utzi mutilena edo neskena zelako? Neskek ondo jokatzen al dute futboleant? Mutilek ba al dakite «sukaldetxoetara» jolasten?
- ↳ Zein dira mutilen jolasak / jokoak? Eta neskenak?
- ↳ Gela honetako mutilek, ilean urkilak jarriko al genituzke? Zeini ez zaizue futboleant aritzea atsegin? Zergatik?
- ↳ Gela honetako neskek, norbaitek futboleant edo kotxeekin jokatu nahi eta ez diete uzten? Denek panpinekin jolasten duzue? Zergatik?
- ↳ Ba al da, Mermel bezala, ez mutil eta ez neska sentitzen dena? Zein jolas / joko dituzu gustukoenak?
- ↳ Zein opari, uste duzu, Mermel-i gehien gustatu zitzaioala? Zein uste duzu izan zela asmatu zuten oparia?

Ipuinaren irakurketari amaiera emango zaio zera zehaztuz: jolasteko / jokatzeko era asko daudela, ez daudela nesken jolas / joko eta jostailuak mutilenak eta jolas / joko eta jostailu guztiak errespetatu behar direla eta baita horietara / horiekin jolastu edo jokatu nahi duten guztiak. Azaldu behar da Mermel bezalako pertsonak daudela ez neska ez mutil sentitzen direnak. Jolasteko / jokatzeko gauzarik garrantzitsuenak ez dira jolasak / jokoak edo jostailuak, baizik eta banaka zein taldeka jolasten / jokatzen dugun era. Taldekako jolasetan / jokoetan aurkakoenganako begirunea, gozatu, dibertitu, jolasa / jokoa egoki burutzeko arauak jarraitu, bortxa ez erabili, ez eraso... Jolasa / jokoa banakakoa bada, kontua gozatzea da ez haserretu galtzen badugu, hobeto pasatzeko zer aldatu behar dudan baizik.



2. JARDUERA

Ikasle bakoitzak bere fitxan sei lauki izango ditu sexistak ez diren jostailuekin (ipuin liburua, ziba, partxisa, erraketa, kanikak), lauki hutsa, nahi duten jostailua egiteko eta azpia sei pertsonaia. Ilaran doazen jostailuak inguratu beharko ditu eta gezi batez markatu jostailu bakoitza nori ematen dion.



3. JARDUERA

Gauza ezberdinak egitea maite duten pertsonekin launakako taldeak osatuko dute eta talde bakoitzak egin beharko du (heldu baten laguntzaz) taldea osatzen dutenei gustatzen zaien jostailu bat eta, gero, berorrek jolastu / jokatu. Garrantzitsua da lehiakor ez diren jolasak / jokoak baloratzea, non irabazlerik edo galtzailerik ez dagoen, hala nola, antzerkia, telefono puskatuak, taldekako koreografiak, etab. Ikasle guztien artean lehiakor ez diren jolasen / jokoen zerrenda egin daiteke.



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Ikasleek beren aitona-amonei, adineko beste pertsonari galdetuko diete zein jolasetara / jokotara aritzen ziren haurtzaroan eta ea beren jostailuak egiten zituzten. Marrazki bat, argazki bat edo bere familiako norbaitek jolasten / jokatzen zuen jolas / joko tradizional baten idatzia egin dezakete.

Hurrengo eguneko bilkuran, bateratze-lana egingo da antzinako jolasen / jokoen (agian ez horren sexistak, hainbeste komunikabiderik ez zegoelako) eta egungoen artean. Maistrak jostailuak edo paper jarraituko jolasak marrazten joango da eta, jarduera bukatzeko, papera lurrean jarri eta gela osoaren artean margotuko da.

Familia guztiek idatziko dituzten jolas / joko ezberdinekin jolas / joko tradizionalen liburu bat egin daiteke, gelan gordeko dena.

8. Elkarri begiratzeko diogu.



Asmakizunetara jolasten

Eskolatik irtetean, baso arrarora jolastera joatea erabaki zuten, baina sartzeko, gutxienez, asmakizun hauen erdia asmatu behar zuten...



Itxi ezin daitezkeen
Itsas kurkuiluaren itxura dugu.
Begietatik hurbil gaude
eta ezkoa garbitu behar diguzu.



Zer duzu hankartean
garbitu beharrekoa,
inoiz azkurarik eman ez
eta usain txarrik ez izateko?



Labur zein luze izan daiteke,
guztia zapatua edo alde batetik soilik.
Taula bat bezalako leuna, izurtua edo
kizkurtua. Gora, behera,
horia, gorria edo arrea.



Erditik zatituta,
oso garbia izan behar du,
sorbaldan bertan bukatzen da
eta bira egin arren ezduzu ikusten.
Baina, hitz egiten utziz gero,
ekaitza sortuko da.







Puntutxikia naiz,
bihotzetik oso gertu,
pitin bat haz naiteke
eta hotzarekin gogortxo jartzen naiz.



Barruan, kanpoan edo erdialdean,
hazten da, txikiagotzen da, baina ez du
beldurrik ematen. Ukitu nahi baduzu
ez da gauza txarrik gertatuko
esku garbiekin eta kontu handiz,
hori da pentsatu behar duzuna.



Bizarrean eta bibotean sortzen zaizkit,
belaunetan eta besoetan,
sortzen zaizkit hemen,
sortzen zaizkit han,
ika-mikak kanpora,
ez ditut kendu nahi.



NOLA DEITZEN DIOGU... ARI?

Etxean galdetu nola deitzen zaien gorputzeko atal hauei eta hitz bakoitzaren ondoan erantzuna jarri.

ALUA:

ZAKILA:

GENITALAK:

GORPUTZ ILEA:

TITIBURUAK:

IPURDIA:

BULARRA:



8. Elkarri begiratzzen diogu.



GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. JARDUERA: Asmakizunetara jolasten

Asmakizunak irakurriko dira gelan eta asmatu gorputzeko zein zatiz hitz egiten ari den eta zuzen izendatu.

1. Asmakizuna, erantzun zuzena: BALARRIAK
2. Asmakizuna, erantzun zuzenak: GENITALAK | ALUA | ZAKILA
3. Asmakizuna, erantzun zuzena: ILEA
4. Asmakizuna, erantzun zuzenak: KLITORIA | GLANDEA | INTERSEX GENITALAK
5. Asmakizuna, erantzun zuzena: IPURDIA
6. Asmakizuna, erantzun zuzena: GORPUTZ ILEA
7. Asmakizuna, erantzun zuzenak: TITIBURUA | TITIBURUAK

Garrantzitsua da ikasleek hizkera zuzena erabiltzea, gorputzeko atal ezberdinez hitz egitean.

Funtsezkoa da, gorputzen arteko ezberdintasunak aztertzeke orduan, kontrajarri gabe egitea (mutilek zakila dute eta neskek ez). Izan ere, hau ez da beti horrela, alua duten mutilak eta zakila duten neskak baitaude, mutil eta neska transexualen kasuan; mutilek zutik egin dezakete pixa eta neskek ez, neskei bularra handitzen zaie, mutilei ez. Beraz, arazoari aurre egiteko bidea ez da kontrajartzea baizik eta bakoitzaren atalen adibideak emanda. Bestela, badirudi bat bestea baino hobea dela, batek ez duela besteak duena, batzuk besteak baino zerbait baliotsuagoa dutela edo beste batzuk ez dutela ezer. Horrela, «cis» neskek, gehienetan, bere sexuaz ohartzen dira zerbait osatugabea balitz bezala (neska naiz mutila ez naizelako) eta, gainera, arau hau jarraitzen ez duten pertsonak kanpo uzten baitituzte.

Komeni da proposamen honetan intersexualitatea lantzea. Gorputzak ez aztertzea zerbait binario bezala, baizik eta formen osotasun bezala. Gainera, aukera hau begiestea: generorik gabeko edo binarioa ez den genero identitatea duten neska/mutilak daudelakoa, bere burua ez mutil eta ez neska bezala ikusten dutenek.



2. JARDUERA

Marrazkiaren gorputzeko atalak moztu ahal izango dute eta irudi batean trukea egin, ikus dezaten haurtzaroko zenbait ezberdintasunak genitaleei loturik daudela eta gorputza aldatzen doan heinean, beste gorputz ezberdintasunak azaltzen direla eta honek pertsona guztiak ezberdinak egiten dituela. Herriaren azken fitxan irudietako bat itsatsi dezakete. Halaber, landu daitezke beste errealitateak: trans, intersex eta ez binarioak. Informazio gehiagorako, kontsulta orri hauek: euforia.org.es; chrysalis.org.es; mibebeintersexual.wordpress.com.



3. JARDUERA

Paper jarraitua lurrean zabaldu eta gelako erdiari bertan etzatea eskatuko diogu eta beste erdiari silueta egin dezala eta, alderantziz. Egin eta gero, irudiak paretean ziltzilikatuko ditugu. Gela guztia marrazkien aurrean jarri eta galdetuko dugu ea berorietan ba ote dagoen zerbait silueta norena den jakinarazten diguna. Zerbait badago, ezberdintasun bat bezala komentatzen da (ilea, gorputzaren itxura, etab...) eta aurretik emandako ideiez argitzen da. Haur hezkuntzan, taldeka, pertsona bat marraz dezakete.



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Haur bakoitza, bizi den familiakoekin eta pertsoekin hitz egin beharko du, gorputzaren atal ezberdinei ematen dieten izenei buruz eta zati bakoitzaren izen zientifikoaren alboan izen horiek apuntatu.

Garrantzitsua da jakinaraztea gorputzaren atal ezberdinak izendatu behar direla. Halaber, garrantzitsua da mundu guztiak ikusi ezin duen gorputzeko atalei buruz eztabaidatzea eta ba ote dagoen jendaurrean ukitu ezin daitekeena, eta zergatik?

9. Gure burua zaintzen dugu.



Adi, adi!

Eskola lehen astean zainketen astea ospatzen dugu.
«Adi, adi!» deitu diogu.

Astelehenean gauzak, mahaiak, aulkiak eskailerak, arbel digitala eta, nire gustukoena, koloretako klarionez marrazten dugun arbela zaintzen ditugu. Eta gela garbitzen dugu.

Asteartean alkate andereari gutun bat idazten diogu, gure hirian ingurumena zaintzeko eskatuz. Baratzea ureztatzen dugu, paperak birziklatzen ditugu eta oinez, bizikletaz edo gurpil-aulkiz etortzen gara. Nolako dibertigarria astea!

Asteazkenean zerbait garrantzitsua dagokigu: maskotak. Egun horretan, animaliak babesteko elkartetik datozkigu; zuzendari andereak bere txakurtxoak ekartzen du eta atezainaren gelaxkoko *hamsterra* agurtzen dugu. Ikustekoa da zein zoriontsu garen ongi zainduak dauden animaliangandik gertu gaudenean!

Ostegunean, patioan adiskidetasunaren eserlekua margotzen dugu. Hantxe esertzen denak beti lagunartea izango du. Beharrezko duenari besarkadak ematen dizkiogu, gure musikak gogaitzen duen galdetu eta goibeldagoenari abesti bat eskaintzen diogu.

Eta ostiralean, asteko egunik hoberenean, nire burua zaintzen dut. Zer behar dudan aztertzen dut. Polchi-k abentura liburu bat irakurtzen du, Fer-ek leihotik begira ari da eta beste munduak irudikatzen ditu. Kriscar-ek, berriz, bere burua ukitzen du masaje bat emanez.

Larunbata eta igandea bikainenak dira. Gure adinduak zaintzen ditugu eta garbiketan lagundu, animaliekin jolasean aritu, landara paseatzera irten eta, ororen gainetik, nigan eta maite duen jendearengan pentsatzen dut.

Adi, adi, zer da gehien maite duzun hori?



FAMILIAN EGITEKO


Etxeko helduei galdetu:

- ↘ Zaintzeak zer esan nahi du? Hiru adibide eman dezakete.
- ↘ Zaintza lanak nork egiten ditu etxean?
- ↘ Etxean, landareak, animaliak, agureak, gaixoak nork zaintzen ditu?
- ↘ Nola zaintzen dute bere burua?

Orri honetan erantzunak jaso (idatzita edo argazki, marrazki edo piktoen... bidez) eta gelaren aurrean azaldu maistrak zehaztutako egunean.



9. Gure burua zaintzen dugu.



Erantzunak:

-
.....
-
.....
-
.....



1. JARDUERA: Adi, adi!

Maistrak aztertu eta eguneroko adibideak jarriko ditu gelan, ipuinean agertzen diren zaintza mota ezberdinei buruzkoak (esparruak eta altzariak zaindu, garbitu, natura zaindu, garraibide jasagarriak erabili, animaliak zaindu, nire lagunak zaindu, adinezkoak zaindu, norbere zaintza, etab...).



2. JARDUERA

Haur Hezkuntzarako. Zaintza esanahia helarazten dieten hiru kolore aukeratu ahal izango dute eta beraiekin marrazki bat egin. Halaber, zaintza ideia berekin dakarten ekintzen piktoak aukeratu ditzakete eta guztion orrian itsatsi.

Lehen Hezkuntzarako. Zaintza zuretzat zer den sinbolizatzeko *collage* bat egin behar izan bazenu, nola egingo zenuke? Egin *collagea* orri honetan edo zure maistrak esaten dizun lekuan. Material birziklatuak erabili.



3. JARDUERA: Erantzukizunak

Adi, adi! Ipuin zatian zera kontatzen da: gela bateko ikasleek bere hiriko alkate andereari gutun bat bidaltzea erabakitzen dutela, ingurumena zaintzeko eskatuz. (Haur Hezkuntzara egokituko da marrazki edo piktoen bidez). Ideia honetan oinarrituta, gelak beste gutun bat bideratu diezaiolke ikasleak bizi diren herriko alkate andereari edo tokiko presidenteari zera exijitzeko: ingurumena edo zaintzan eragiten duten herriko beste zenbait alderdi zaindu ditzala: esparru komunak, aisialdi esparruak, osasun esparruak, esparru sozioedukatioak, etab... Ikastaldearen arabera, aztertu ahal izango da herriko eta estatuko gobernuak duen garrantzia, herritarren zaintzari dagokionetan. Ikasleek burutu dezakete, gobernuari exiji dakiokkeen erantzukizunen zerrenda. Adibidez: kutsadura protokoloak errespetatu, etxebizitza baterako eskubidea zaindu, etab... Udalaren Osasungintzako ordezkaria edo antzekoa gonbidatu daiteke, gelara etorri, ikasleekin solasean aritu eta gai hauei buruzko hitzaldia emateko.



4. JARDUERA: Adiskidetasunaren eserlekua

Eskolan adiskidetasuneko eserleku bat edo batzuk margotu ahal izango dira. Ekimen honen bidez, zenbait ikastetxetan dagoeneko garatzen ari dena, zera lortu nahi da: ikastetxeko ikasleek eserleku horretan esertzen denari zaintza, maitasuna eta arreta, emango diotela.



5. JARDUERA: Hemen denok garbitzen dugu

Ikastetxearen garbiketako langileak gonbidatu daitezke gelara, beraiekin solas egin edo elkarrizketatzeko ikastetxeko garbiketari lanei eta ikasleek zertan kolaboratu dezaketen gaiari buruz.



6. JARDUERA: Animaliangandik ikasten

Ipuinaren pasarte honetan erakusten da zaintzari loturiko gauza asko animaliei esker ikasten ditugula. Maskota bat izatea erabaki dezakete, bere zaintza gelaren mende izango dena. Halaber, «Maskoten Eguna» antola daiteke non, horietako bat duenak honen maskotaren argazkia ekar dezakeen eta gelako gainerakoei kontatu zein izen duen eta beretzat zer gustatzen zaion gehien.

Leganen begiak bideo-ipuina ere ikus daiteke (<https://www.youtube.com/watch?v=foy0pv8GL9s>) animalien tratu-tzarrei buruzkoa eta gelan eztabaidatu zoologikoei eta animalien beste tratu-tzarrei buruz.



7. JARDUERA: Zaintzera goaz

Gelaren zaintzarako, taldekako lanak banatu daitezke: landareak ureztatu, arbela garbitu, lurretik gauzak jaso... astero, eta taldeka, txandatzen joango direnak.

10. Begira eidazu, errespeta nazazu.



Neri egitea gustatzen ez zaidana kontatzen dut

Afaldu ondoren, Mermel, lastoz egindako bere sofan esertzen da eta pixkanaka lo hartzen du, orduan mundu errespetagarriagoarekin egiten du amets...

Nire masailak marruskatzea atsegin ez bazait, etzazu egin.

Auzokidea besarkatu nahi ez badut,
ez nazazu horretara behartu.

Mototsak gustatu ez eta gorrotatzen baditut,
errespeta ezazu nola orraztu nahi dudan.

Zu nigana gehiegi hurbiltzea atsegin ez bazait, alde nigandik.

Zuk ni ustekabeen harrapatzea gustatzen ez bazait, galdetu aurretik. Gonak jarri nahi ez badut,
utzi nire jantziak aukeratzen.

Txiki izatea ez da gutxiago izatea, Txiki izatea baino ez da.

Zure beharrak ez dira nireak.

Zu zeu zara, ni neu naiz... **BEGIRATU ETA ERRESPETA NAZAZU.**



FAMILIAN EGITEKO

Etxeko adinekoei galdetu beraiei zer egin ziezaieten ez zitzaien gustatzen haurtzaroan eta orain. Beren erantzunak jaso orri honetan. Erantzunak idatz ditzakezu, irudikatzen dituen marrazkia, edo biak.

.....

.....

.....



10. Begira eidazu, errespeta nazazu.



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

1. Familian burutzeko jardueraren bateratze-lanean adibide ezberdinak ager daitezke. Garrantzizkoa da maistrak ikasleekin aztertu ahal izatea eta baloratzea ea adinekoei haurtzaroan pasatzen zitzaizkien gauzak, gaur egun dirauten edo egoera aldatu den.

Funtsezkoa da, egitea gustatzen ez zaizkigun gauzen, baina egin behar ditugunak beharrezkoak direlako (goizean goiz jaiki, janari motaren bat jan, etab...) eta guri egitea gustatzen ez zaizkigun arteen beharrezkoak izan arren, proposamen didaktikoaren testuko adibideak, esaterako.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA: Niri egitea gustatzen ez zaidana kontatzen dut

Maistrak testua ozenki irakurri eta eztabaidatuko da ondoko galderei jarraituz: Zein gauza ez zaigu guri egitea gustatzen? Zein bide erabil dezakegu azaldu eta komunikatzeko egiten ari zaizkigun zerbait ez zaigula atsegin?

Gutziz garrantzitsua da bereiztea, gu egitea atsegin ez ditugun gauzen baina egin behar ditugunak beharrezkoak direlako (esaterako, goizean goiz jaiki, janari motaren bat jan, higiena, etab...) eta bestek guri egitea gustatzen ez zaizkigun arteen eta beharrezkoak ez direnak, proposamen didaktikoaren testuko adibideak, esaterako.



2. JARDUERA: Errespeta nazazu

Testuaren irakurketak gogorazi dien egoera bat marraztuko dute banaka, txiki izateagatik egin eta egin diezaieten gustatzen ez zaiena. Marrazki guztiekin erakustaldia egin daiteke; bertara familiak etor daitezke eta «ERRESPETA EIDAZU» izena eman.



3. JARDUERA: Nola sentitzen naiz?

Aurpegi ezberdinetatik abiatua, ikasleek identifikatu beharko dituzte zeinek islatzen duen, haserrea, ondoeza, poza, atsegina, beldurra, nahigabea... Bakoitzak aurpegi bat baino gehiago egin dezake feltroan zein paperean eta horietako bat aste horretako eguneroko bilkuran jarri ahal izango da, sentitzen den arabera. Horrela, ongi edo gaizki sentiarazten dieten gauzak landu ahal izango dira. Hauxe, aurrerapauso garrantzitsua litzateke abusu egoerak aurreikusteko, nola sentitzen naizen onartzeko edo muga noiz jarri behar den jakiteko.



4. JARDUERA: Gustu handiko posterra

Banaka zein taldeka bi zutabeko posterra burutuko dute: zutabe batean, beraiei egitea gustatzen zaizkien gauzen marrazkiak edo piktoak jarri edo itsatsiko dituzte. Taula orri batekin egin dezakete eta, ondoren, gelan edo ikastetxeko pasilloren batean poster guztiak itsatsi.



5. JARDUERA: Aritzen

Haur Hezkuntzan. Bikoteka, lazoak jarriko dituzte gorputzaren atal ezberdinetan (hatzetan, eskumuturrekoetan, besoetan, diadema bezala...). Ondoren, non gustatzen zaidan gehiago, non ez zaidan atsegin, non maite ez dudana zehaztuko dut... Horrela, generoari loturiko gaiak ere lantzeko aukera izango dugu.

«BAI» eta «EZ» daramaten kartelak banatuko dira eta proiektore batean ekintza ezberdinak pasako zaizkie eta gustatzen zaienean «BAI» kartela altxatuko dute eta alderantziz, «EZ», gustatzen ez zaienean. Adibidez, besarkatu, musu eman, bizkar eman...

Lehen Hezkuntzan. Maistrak *role playing* motatako ariketak egitea proposatuko ditu, beraiei egitea gustatzen ez zaizkien gauzetatik abiatua. Ekintza hauek interpretatetik abiatuta, bikoteka, batek besteari gustatzen ez zaizkion ekintzak egingo dio. Ondozak komunikatzeko hiru faseak egin daitezke: 1. egiten ari zaizkidana identifikatu eta hitzez adierazi, 2. egiten ari zaizkidana hau eta gustatzen ez zaidana, hitzetan adierazi eta segurtasunez ozenki adierazi, 3. zuri ez gustatu arren egiten ari zaizuna egiteari utz diezaioten zerbait egitea.

Maistrak zera proposatuko du: aste honetan zehar, interpretatu duten antzeko egoera bizi izan badu norbaitek gelan kontatzea. Kontatutako esperientzietatik abiatuta, hau aztertuko da gelan: zein gauza esatea gutxiago kostatu zaien eta zein gehiago eta zein komunikazio estrategia funtzionatu zaien kasu bakoitzean.

11. Ez ezetz da. Zein hizki ez duzu ulertzen, «E» ala «Z»?



Karakola

Baso barnean, karakolak bere bizitza kontatu zien...

—Kaixo, Karakola —esaten zioten bere lagunak.

—Kaixo, nire etxera etorri nahi duzue?

Karakolak bere etxean festa ugari antolatzen zituen. Gusi-Gusi gonbidatzen zuen, Serafina beldarra, Fino inurria eta Tulga arkakusoa.

Karakola Sebastopolen bizi den barraskiloa da, bere adarrak eguzkitara ateratzen dituena.

Baina, behin bere etxean gonbidatzeari utzi zion, ez zuen festarik egiten eta ez zen etxetik ateratzen.

Eta esaten zioten: Karakola, Karakola, atera etxetik, ez baitzaude bakarrik. Baina Karakolak ez zuen hitz egin nahi eta Figo inurriak mehatxatu eta esaten zion: Zure etxetik botako zaitut eta zure ama joko.

Fino inurria Karakolaren etxean sartu eta ez zion lo egiten uzten. Pijamaren azpitik ukitzen zuen berak nahi ez izan arren.

Behin, Karakola nazkatu eta Fino-ri «Ezetz», esan zion baita lagunei, bere familiari eta maistrari kontatu ere, eta, ondoren, taldean Fino inurriarihauxe esatera joan zire:
—«Ez», «Ezetz» da. Zein letra ez duzu ulertzen, «E» ala «Z»?



FAMILIAN EGITEKO

Ikastetxeak _____ (e)n familia,
urtarrilaren 19an, _____ (e)tan, gonbidatzen du _____
_____ ikastetxean, Haurren Abusua Prebenitzeko
Mundu Eguna ospatzera.

11. Ez ezetz da. Zein hizki ez duzu ulerzen, «E» ala «Z»?

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA: Karakola

Karakolaren ipuina ozenki irakurri eta galderak egingo dira landutako kontzeptuak barneratzen laguntzeko. Hauek izan litezke:

↳ Nolakoa zen Karakola Fino inurriak molestatzen hasi aurretik? Zer egiten zuen Fino inurriak gauero Karakolaren etxean? Zer egin zuen Karakolak arazo hori konpontzeko? Nork lagundu zuen Karakola?

Mugak, norberarenak zein besteenak, errespetatzeko garrantziaz hitz egin.

↳ Ba al dakizu sekretuak zer diren? Zer egin behar da beraiekin?

↳ Sekretu onak eta txarrak al daude? Jarri adibideren bat. Zer egin dezakegu sekretu bat ona ez bada? Azpimarratu beharko da onak ez diren sekretuak badaudela, kaltegarriak izan daitezkeela eta kontatu egin behar direla.

Garrantzitsua da transmititzea inork ez dituela molestatu edo mehatxatu behar (familiako, eskolako edo ezezagunen bat izan arren) eta, horrela egiten badu, bere konfiantzapeko pertsona laguntza eskatu behar diela, elkarrekin arazoa konpontzeko.



2. JARDUERA

Margotu eta moztu ahal izango dute egun horretan gertutasun handiagoa duten aurpegia. Guztien artean zergatia azalduko da. Aurpegi goibel edo haserrenen bat balego, taldean arazoieiei buruz hitz egingo da edo banaka maistrarekin beharrezkoa balitz. Haserrea edo tristura konpondu ahal izateko bideak asmatuko dira (adibidez, norbait triste badago beste batek gaizki tratatu duelako, honek kaltea zuzendu beharko du zerbaitekin, tristerik dagoen pertsona hobeto sentiarazteko). Lagundu gaitzke *El Emocionario*-rekin (<https://www.palabrasaladas.com/emocionario.html>).



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

Ikasleen familiakoei eta etxekoei dei egingo zaie, sexu abusuen arazoa lantzeko. Bilkura modu honetan eman ahal izango da:

↳ Gelan landutako materialari buruzko hitzaldia ematea.

↳ Interneten aurkitu daitekeen materialean oinarritua lan daiteke <https://www.coe.int/en/web/sport/start-to-talk>. Material hau Europako Kontseiluaren egungo Kanpainaren zati da, adingabeengan sexu abusua prebenitzeko.

↳ Informazio gehiagorako helbideak eta interes guneak eskaini. Adibidez, ikastetxeko zuzendaritza taldea, orientatzailea, Hezkuntza Ikuskaritza, elkartearenganako zerbitzuetako pertsonal teknikoak (PTSC) eta baita Udaletik edo Gizarte Zerbitzuetatik datozkigunak.

↳ Bere familian abusuak detektatzean eratoritze bideak eskaini.

↳ Elkartearenganako zerbitzuetako pertsonal teknikoak sexu abusuari buruzko ikastetxeko jarduerak protokoloaren berri emango du. Protokolorik ez badago, taldean prozedura bat jarriko da abian gaiari ekin eta eman daitekeen adostasun handienarekin jarduerak protokolo propioa burutzeko, ikastetxearen ezaugarrietara egokituta.



3. JARDUERA: Eguneroko agerraldiak

Hasiera batean, gustatzen ez zaizkigun gauzei «EZETZ» esateko garrantziosi buruz hitz egingo da. Ondoren, eguneroko bizitzaren eszenak antzetzuko dira non, norbait erasotu dezakegula uste dugun eta «ezetz» esaten arituko gara, «ez dut nahi» edo «ez dut maite». Adibidez, ondoko eszenak edo gertatu zaielako ikasleek bere planteatutako beste batzuk antzez daitezke:

↳ Bere arreba / ahizpak usu masailak ukitzen dizkion pertsona batek esan beharko dio: «Niri masailak ukitzea ez zait gustatzen».

↳ Heldu batek burua ukitzen dion haur batek esan beharko dio: «Zuk nire burua ukitzea ez zait gustatzen».

Kontuan hartu behar da ere, pertsona batek ezetz dioenean, errespetatu behar dela.



4. JARDUERA: «Ez» «ezetz» da

Haur Hezkuntzan: Bilkura erabiliko da guri egitea gustatzen ez zaizkigun gauzak azaltzeko. Erreferentzia moduan *Martak ez du musurik ematen* ipuina (<https://www.traficantes.net/libros/marta-no-da-besos>).

Lehen Hezkuntzan:

↳ Haur bakoitzak pilota hartu eta esango du: « Ez zait gustatzen...-t(z)ea... ».

↳ Pilota bat botako da eta norbait joz gero, esango du ozenki «EZ EZETZ DA». Praktikatzeko, erronda bat egiten has daiteke non, haurrek «EZ EZETZ DA» esan eta, ondoren hurrengoari pilota pasa. Jarduera ixteko, komenigarri da eztabaida sortzea non, irakasleak azalduko duen gauza bera egokia edo desegokia izan daitekeela pertsonaren arabera eta zeini esan behar diogun «EZETZ» (ferekak, musuak, ekintzak, hitzak...) eta besteei azaldu (gehienbat gaizki sentiarazi edo dudak sortarazten dizkigutenak).

Komeniko litzateke aurretik elkartearen zerbitzurako irakasle teknikoekin eta orientatzailearekin lan egitea (PTSC), familiei eta eman daitezkeen tratu txarren eta abusuei buruzko informazioa eskuratzeko, aipatu familia horiekiko bilkura eta gelarekiko jarduerak egoki enfokatzeko.



5. JARDUERA: Fidatuz

Pertsona bakoitzaren bizi espazioa zein den detektatzen ikasteko eta esparru hori lapurtzen digutela sentituz gero, nola jardun behar dugun, jarduerak garatuko ditugu. Ondokoak izan daiteke:

↳ Jokoa / Jolasaren arauak: gorputz jokoak / jolasak erabiliko ditugu, hala nola, eskuen erpuruak harrapatzea. Arauak argituko dira eta jakinaraziko diegu arauak errespetatzearen garrantzia.

↳ Bikoteka, gelaren albo bakoitzean pertsona bat bestearen aurrean. Alde batekoak beste aldekoengana hurbilduko dira eta gehiago hurbiltzea nahi ez dugunean esan beharko dugu: «GELDIK!».

↳ «EZETZ» esaten lantzeko jarduerak. Galderak egingo dizkiegu ezetz esaten praktikatzeko (galdera guztien betekizuna ezetz esatea). Adibidez: kaka jan nahi dut, jo gaitzela gustatzen zait...

↳ Konfiantza jolasak / jokoak: erortzeari uztea bestek har zaituzten, itsuaurrekoa...

↳ Taldekako kirol jolas / joko bat asmatuko dugu, erabakitako arauarekin, non, «no» edo «stop» hitzak erabili behar diren.

↳ Erabakiko dugu, gelako zein toki izango den publikoa talde guztiarentzat eta bakoitzak zein hartzen duen pribatutzat, horrela, publiko-pribatu kontzeptua aztertuko dugu eta baita mugak nola errespetatu.

12. Stop.



Txas-aren rap-a

(«Txas egiten dut eta zure ondoan agertzen naiz» esaldia, Álex eta Cristinaren abestitik atera da, 1987)

Irainak patioan,
maritxu, lau begitako, lodikote, ñimiño,
TXAS egin eta zure ONDOAN agertzen naiz.

Oihuak, isekak, arbuioak,
TXAS egin eta zure ONDOAN agertzen naiz.

Kolpeak, bultzadak, ostikoak eta harramazkak,
TXAS egin eta zure ONDOAN agertzen naiz.

Ez dago irtenbiderik, bakardadea, denbora izoztua,
TXAS egin eta zure ONDOAN agertzen naiz.

Txas egiten dut, txas egiten dut, txas egiten dut, txas egiten dut.
Ni zurekin, zu nirekin, denok elarrekin, gehiago gara.
TXASSSSSS!¹

1. Rap-eko erritmoan abestu.



FAMILIAN EGITEKO

Zure etxeko adinekoak eskolara zihoazenean:

- ↳ Beraiekin sartzen ziren? Horrela bada, zer egiten zuten defendatzeko?
 - ↳ Beraiek besteekin sartzen ziren?, zein ziren bere arrazoiak?
 - ↳ Pertsona batzuk besteekin sartzen zirela ikusten zuten?, zergatik ez zuten egoera gelditzen? Gelditzen bazuten, nola egiten zuten?
- Idatzi beren erantzunak horretarako aukeratutako esparruan eta zure irakasleak erabakitako egunean gelakideekin partekatu.

12. Stop.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA: Txas-aren rap-a

Haur Hezkuntzak: Gelakoen artean ideia zaparrada botako dugu, gelako arauak ezartzeko. Batzarrean egingo da eta ideiak paper jarraituan jaso. Ondoren, gelakoen artean arau horiek aztertu eta bozkatuko ditugu, guztiok ados egoten saiatuz. Beste paper jarraituan idatziko ditugu, koadro baten erara, eta markoa margotu dugu zintzilikatu eta gela apaintzeko.

Mozorroak egingo ditugu, rap bezalakoak (proposatuko da, bakoitzak bere mozorroa erabaki dezala kontuan hartu gabe neska ala mutila den. Banaka superbote bat irudikatuko dute oldarkotasunari aurre egiteko

Lehen Hezkuntzan: Rap-a irakurriko da eta eskolan dauden indarkeria mota ezberdinak aztertuko dira (irainak, ostikoak eta kolpeak, ez ikusiarena egin eta jolasten ez utzi, partekatu ez, gelako materia puskatu, eten...). Ondoren, honetaz eztabaidatuko da: indarkeria horiei aurre egiteko, defendatzeko erabil ditzakegun estrategiaz edo beste pertsonak zaintzeko biderik egokienaz. Funtsezkoa da azpimarratzea, indarkeriaren eta jazarpenaren aurrean oinarritzkoa eta beharrezkoa dela erantzun kolektiboa ematea.

Gutziz garrantzizkoa da pertsona salatariaren irudia lantzea. Gelak konfiantzazko lekua izan behar du, Ikusi eta gustatzen ez zaizkien gauzak konta ditzakete. Ez da salatari izatea, bere burua eta ikaskideena zaintzea da.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



2. JARDUERA

Haur Hezkuntzan: Zerrenda bat egin ahal izango da edo ozenki esan zein diren gehien eta gutxien gustatzen zaizkigun gauzak. Helburua zera izango da: ikasleak kontziente izatea mundu guztiari ez zaizkiola gauza berberak gustatzen.

Material leun batean, Mermel egin ahal izango da, gero zirkuluan kokatuta batetik bestera pasatzeko (lan lehen proposamenean egin zen maskota erabil daiteke). Mermel daukanak beste pertsona baten gauza positiboak esan beharko ditu, gelako kide guztiei zerbait positiboa esan arte. Gela barruan edo kanpoan, ikastetxearen esparru ireki batean, 5 edo 6 pieza handi duen puzzle baten fitxak gordeko dira koadrilarekin. Taldeka, galderei erantzuten ikasi beharko dute piezak aurkitzeko, talde bakoitzak horietako bat aurkitu beharko du. Dituztenean, koadrilaren puzzlea osatuko dugu denon artean.

Lehen Hezkuntzan: Indarkeriarik gabe ikastetxea nola izango litzatekeen marraztuko dute. Ondoren, marrazki horiek, A4 neurritako orrietan, tamaina bereko sei laukietan moztuko dira. Bere marrazkia zatitu duen sei laukietatik batekin marrazki bat egin beharko dute eta beste bost beste pertsonen marrazkietatik.



3. JARDUERA: Musika jartzen

Gelako guztien artean rap bat edo beste abesti mota egin daiteke eskola jazarpenaren aurka borrokatzeko. Halaber, Txas-aren rap-aren letra erabil daiteke, musika jarri eta koreografia bat letra luzeagoa eginez. Jarduera honetarako, musikako irakaslearen laguntzaz balia daiteke. Era berean, rap-aren letra sor daiteke ikasle bakoitzak esaldi bat idatzita eta guztiak bilduta. Literaturako irakaslearen laguntzaz, bere letretan indarkeria salatzen duen poetisa baten poemaren bat rap-aren moldetara eraman.



4. JARDUERA: Indarkerian aurrean, erne!

Eskolan ematen diren indarkeria eszena ezberdinak irudika daitezke, aztertu, irtenbideak arakatu eta berriro irudikatu, antzezpenean planteatu diren ebazpen proposamenak txertatuz.



5. JARDUERA: Bateratzaileak, erreskatatzera!

Astero edo bi astero bi pertsona bateratzailek osatutako ekipoa funtzionatzen jarriko da. Hauek lana, taldearen ikaslearen arteko liskarrak uxatu, norbaitek, bizi izan duen indarkeria egoeraren bat, kontaktu nahi badie berari aditu eta indarkeria egoeraren bat ikusiz gero irakasleari informatzea. Bateratzailearen betekizuna aldatzen joan daiteke gela osatzen duten kide guztiekin.



6. JARDUERA: Primeran sentitzen naiz

- ↘ Eskerren kaxa: kaxa polit batean gelako izen guztiak sartuko dira. Tarte batean jolasten eta gozatzen arituko gara. Maistrak esandakoan, izenak kaxatik aterako dituzte eta gelakideek, egin duen gauza positiboagatik atera den pertsonari, eskerrak emango dizkiote.
- ↘ Besarkaden txokoa: adostasunez, txoko bat aukeratuko dugu, mundu guztia behar duenean edo besarkadaren bat jaso nahi duenean, bertaratu dadin.
- ↘ Positibotasunaren poltsa: guztion artean egindako poltsa erabiliko dugu. Poltsa oso, oso polita. Ostiralero, egunaren eta bilkuraren hasieran, gelako beste norbaitekin pasa zaigun zerbait polit edo interesgarria idatzi beharko dugu. Paper batean idatziko da, aurpegi alaiarekin eta pertsonaren izenarekin. Eguna amaitu aurretik, mezu positiboak irakurriko dira asteburu on bati hasiera emateko.

13. Maitasunak.



Hanketako behatzak



Mermel-ek, hanketako behatzen bitartez,
maitasuna aurkitu zuen.

Emakume batekin dagoenean,
badirudi hanketan inurriak arineketan dabiltzala.

Honek zertxobait atsegin bazaio,
behatzak etengabe irekitzen zaizkio.

Mermel eta Kriscar elkarrekin besarkatzen
direnean, ordea, agudo erlaxatzen zaizkio.

Eta norbait gustatuz gero,
azkeneraino joango da.

Maitasunak izozkien zapoak
bezain askotarikoak dira.



FAMILIAN EGITEKO

Elkarrekin ateratzen hasi zinetenean, zer gustatu zitzaizun zure
bikoteaz?, eta orain?

Zure hurbileko lagunengan zer da gehien gustatzen zaizuna?, eta
bizi zarenengan?



13. Maitasunak.



FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

- Ikasle bakoitzak, beste pertsona batekin bizi den familiako norbaiti galdetuko dio zer gustatu zitzaion bere bikoteaz ezagutu zuenean eta zer gustatzen zaion orain. Eztabaida honen inguruan izango da: diferentziak pertsonengan daudela, ez bere sexu edo generoan.
- Ikastetxea, ama eta aita LGTBI+-en elkarteren batekin harremanetan jar daiteke, horietako batek bere esperientzia kontatzeko edo zonaldeko LGTBI+ elkarterekin batekin aholkularitza eskuratzeko.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA

Ipuina irakurri eta ondoren doazen antzeko gaiei buruzko eztabaida antolatatu:

- Zein maitasun mota azaltzen dira ipuinean?
 - Maitasun guztiak neurri berean dira garrantzitsuak?
 - Inor maitatu gabe eta zu inork maitatu gabe bizi al daiteke?
 - Sexu bereko pertsonak ezkon daitezke? Munduko herri guztietan hau berdina al da?
 - Seme-alabak izango ahal dituzte?
 - Zein izango da zoriontsuago, emakume eta gizon batez osatutako bikotea ala bi emakumez edo bi gizonaz osatutakoa? Zergatik?
 - Bikotea beharrezkoa al da zoriontsu izateko?
 - Zergatik erabakitzen dute batzuk bikote-bizimodua ez izatea? Argudiorik gabe utzi behar zaio ondoko ideiarri: bakarrik egon eta bizi den pertsona, «mutil / neska zaharra» dela, maitasunik gabeko adieran, «maitasun erromantikoa» deiturikoaren arabera, batzuetan min handia egiten duena. Maitasun guztien zilegitasunez hitz egin beharko da eta bikotearen arteko maitasuna hainbeste-koen artean bat dela.
- Aurreko galderetatik abiatuta, azter daiteke zerk eragiten du bikote edo familia batek hobeto ala txarrago elkarrekin eramatea... barneratu dezaten bikote edo familia bat zoriontsuagoa izateko faktoreak ez daudela nortzuk osatzen duten edo sexu orientabidearen mende, baizik eta elkarri dioten errespetuaren, gauzak elkarri kontatzeko duten askatasunaren, barre egiten dutenaren, elkarrekin gauzak egiten dituztenaren, giroa atsegina izatearen mende...
- Argi eta garbi utzi behar da, ez direla pertsonak iraindu behar emakume edo gizon bat edo, batera pertsona bat baino gehiago maitatzeagatik. Garrantzizkoa da uler dezaten, aditu edo erabiltzen dituzten zenbait termino, hala nola, «maritxu» edo «mari-mutil» mingarri izan daitezkeela.
- Ohiko ipuinei buruzko galderak egitera animatuko ditugu, bukaerak aldatuz:
- Zer gertatuko litzateke, Loti Ederrak, lotan zegoela, printzeari musu emango ez balio? Hori zergatik ez dago ongi?
 - Zer gertatuko litzateke, Aladdin-ek printze batez maitemindu balitz?
 - Zer gertatuko litzateke, Piztiak Ederra giltzaperatu ez balu eta aske balitz?
 - Zer gertatuko litzateke, Errauskinek bere aurpegia ere gogoratzen ez duen jaun baten andregai ez izatea erabaki izan bazuen?
 - Zer gertatuko litzateke Sirenatxoak bere gorputzari eta ahotsari uko egingo ez balizkio?
 - Zer gertatuko litzateke, printzesa ezagun batek senargairik izan ez edo andregai izango balu?



2. JARDUERA

Irudikatzen duten eran oinaren marrazkia egingo dute fitxan eta, erabaki, bere ustetan, zein maitasun mota den garrantzitsuena.



3. JARDUERA

Aukeratutako oinaren behatze edo maitasun bakoitzarekin oinak sentitzen duenaz karakteriza daitezke eta arratsalde batean ipuina, dagoen bezala edo gelak erabakitako aldaketekin, antzeztu. Ezkontzaren bat balego, zibila izatea komenigarri da, balizko elkartze legeztatu guztiak aztertze bide bakarra. Ikasleren batek, mugimendu-eragozpenak direla eta, oinaren behatza karakterizatze gai ez balitz, gorputzeko beste atalen bat aukera lezake edo, hitzez adierazi edo bere behatza apaindu nahi zuen moldeetara egokitzen den piktoak aukeratu.

14. Familia gara.



Ipuin arraro eta bustia

Mermel-ek badu gorputza, herria, etxea, koadrila, jantziak... badu elkarte eta, egun batzuk direla, Manuela astemearekin bizi da.

Festa egunean familia guztiak landan elkartzen dira, barreak hemen, barreak han, jolas-piloa eta jatorri askoko janariak.

Mermel Manuelakin joan da eta Meberekin elkartzen da; honek familia handia du: aiton-amonak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak... Gauza dibertigarriak egiteko biltzea maite dute eta, dantzaren erdian, Manuelak halako soinua duen uzterra botatzen du: «Prrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrrr». Irriak alboko herrian ere entzuten dira.

Babestua bizi eta bere txakur txikiarekin ezin hobeki pasatzen duen Kriscar bisitatzera doaz. Txakurtxoarekin jolasten dute eta bumerang baten antzera joan eta etortzen diren makilak botatzen dizkiote. Manuela halako iskanbilarekin urduri jartzen da eta airera ostikoka hasten da. Ji, ji, ji, ja, ja, ja, barrezka jarraitzen dute etengabe.

Fer bere aitarekin, bere ahizpa zaharragoarekin eta tablet-etik arrainak jaten jolasten duen kateme batekin bizi da. Bere ama orain dela gutxi hil zen eta, Mermel-ek hori badakenez, Fer-ekin *tabletarekin* jolasten geratzen da, amaren argazkiak ikusten. Manuela, oso triste, bere amagandik bereizi zutenetik gogoratzen da eta *tablet-a* malkoz betetzen du.

Pituk urrutitik Mermel deitzen du eskuarekin keinuak eginez:

—Mermel, Mermel!

Pitu bere amarekin, bere aitarekin eta bere aitak beste neskarekin izandako bi anaiekin bizi da.

—Mermel, zuk zergatik ez duzu familiarik?

Mermel-ek Manuelari begiratzen dio, berarekin dagoenean, neguan udarako beroa sentitzen du eta badaki ez dagoela bakarrik.

—Manuela nire familia da. Zer da zuretzat familia bat?

Peca-k, meloia jaten ari den bitartean, solasaldia entzun du, bere bi ahizpa zaharragoarekin bizi da. Bere gurasoak eta bere ama beste herri batean bizi dira. Peca, giza ugalketa lagunduaren tekniken bidez sortua izan zen.

Peca erantzutera doa eta une horretan trumoiak jo du.

DANBA, DANBA! Busti egingo gara!

Badirudi tximista bat Mermelaren gainera eroriko dela baina Manuela astameak ostiko batez saihesten du. Gero eguzkia sortzen da, ostadarra zeruan eta Manuelaren ilea kolore anitzez bihurtzen da.


Orduan, Mermelek oihu egiten du:

—FAMILIA IZATEKO ERA ANITZAK DAUDE. Zein da zeurea?

Eta hau hala ez bazan sar dadila kalabazan...

Ipuin arraro eta busti hau bukatu da.

Oraingoan, Mermel-en mundu arraroa bukatzean dago, ziur aski abentura berriak biziko ditu eta istorio hauek ez dira hemen eta orain bukatzen...



14. Familia gara.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



1. JARDUERA

Maistrak ipuina irakurri eta ondoko galderak egingo ditu:

- ↳ Zer da familia bat?
- ↳ Familiarik ez balute, zer egingo lukete?
- ↳ Ipuinaren zein familiarekin geratuko lirateke eta zergatik?
- ↳ Bi amekin biziko balira nola sentituko lirateke? Eta bi aitekin? Eta adingabekoen zentro batean? Eta aita eta ama batekin? Eta bakarrik bere amonarekin?
- ↳ Zein familia motak soluzionatzen ditu hobekien eguneroko bizitzan sortutako arazoak Zergatik?
- ↳ Zein familia mota de zoriotsuen? Zergatik?

Garrantzitsua da maistrak edo maisuak zera aipatzea: familia baten funtsezkoena elkar maite eta errespetatzea dela eta maitasun eta zaintza lanak edozeinek egin ditzakeela.

14. Familia gara.



FAMILIAN EGITEKO

Marratzu zure familia.



14. Familia gara.

GELAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK



2. JARDUERA

Haur bakoitzak gehien gustatu edo identifikatzen den familia moztuko du eta azken herrian itsatsiko du.



3. JARDUERA

↘ Paper jarraitua paretan jarriko da. Haur bakoitzak norekin bizi den esango du eta aipatzen dituzten familien ereduak marrazten joango dira paper jarraituan. Saioa zuzentzen duenak bate-ratze-lanean azaldu ez diren familia ereduak txerta ditzake. Saioaren amaieran papera lurrean jar daiteke koloreztatzeko. Gero, gelan edo ikastetxearen pasilloan erakutsi.

↘ Gela bost taldetan banatzen da eta rolak esleitzen zaizkie (aita-ama duen familia, aita-aita, ama-ama, aita bakarra eta ama bakarra seme-alaba bat edo gehiagorekin, berreraikia, adingabe-koen zentro edo beste aukerak). Talde bakoitzak eguneroko bizitzaren eszena bat prestatu beharko du (bazkaria, eskolara eraman, garbitasuna, loa, gaixoei zaintzea...). Eszenak antzetzuko dira, oinarrizko funtzioak familia guztiek bete dezaketela azpimarratuz.


Gomendatzen da, amaren edo aitaren eguna ospatu ordez, maiatzaren 15ean, ikastetxean Familien Nazioarteko Eguna ospatzea.




FAMILIAN LANTZEKO ORIENTABIDEAK

Familia marraztuko da. Marrazki guztiekin liburu bidaiaria egin daiteke. Familia bakoitzak fitxa beteko du argazkiekin, olerkiekin, ipuinekin, abestiekin...


 **Mermel-en herria.**



Superkoadrila



Mebe



Peca




Kriscar




Mermel



Fer



Pitu



Polchi



Mebe



Peca




Kriscar




Mermel



Fer



Pitu



Polchi

Mermel-en mundu arraroa

Haur eta Lehen Hezkuntzan aniztasunari eta disidentziei ekiteko proposamen didaktikoak.



